

EUSKADIKO  
**GORROTO**  
**GERTAKARIEI BURUZKO**  
2020KO TXOSTENA



EUSKADIKO  
**GORROTO**  
**GERTAKARIEI BURUZKO**  
2020KO TXOSTENA

*Euskadi, auzolana, bien común*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **EUSKADIKO GORROTO-GERTAKARIEI BURUZKO 2020ko TXOSTENA**

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

### **Zuzendaritza eta Koordinazioa:**

Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA Irak. Dk. (Zuz.)  
Enara GARRO CARRERA Irak. Dk. (Koord.)

### **Lantaldea:**

Mikel ANDEREZ BELATEGI  
Bertha GAZTELUMENDI CABALLERO  
Iñigo GORDON BENITO  
Uxue MARTÍN SILVA  
Lore MENDIZABAL ZUBIAURRE

Segurtasun Saila  
Eusko Jaurlaritza

Vitoria-Gasteiz/Leioa,  
2021eko martxoa



<b>LABURDURAK</b>	5
<b>SARRERA</b>	6
<b>1. GORROTO GERTAKARIAK 2020</b>	7
■ 1.1 GORROTO GERTAKARIEN BANAKETA	9
1.1.1 Gorroto delituen sailkapena delitu-tipologiaren arabera	12
1.1.2. Gorroto delituen banaketa espaziala	15
1.1.3. Gorroto delituen denbora-banaketa	22
■ 1.2. EGOZPENEN BANAKETA	26
■ 1.3. ATXILOKETEN BANAKETA	30
■ 1.4. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA	35
■ 1.5. ONDORIOAK	40
1.5.1. Gorroto gertakarien guztizko kopurua	40
1.5.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboen mapa	41
1.5.3. Delitu-tipologiak	41
1.5.4. Denbora- eta espazio-banaketa, eskualde mailako banaketa, egotziak, atxilotuak eta biktimak	42
1.5.5. Euskadiko gorroto mapa Estatu mailako testuinguruan	43
<b>2. DATU OFIZIAL EGUNERATUEN ESPARRU KONPARATUA</b>	45
■ 1. ERRESUMA BATUA	46
1.1. Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera	46
1.2. Beste datu batzuk eguneratzea: Eskozia	47
1.3. Beste datu batzuen eguneratzea: Ipar Irlanda	50
1.4. Beste datu batzuen eguneratzea: Ingalaterra eta Gales	53
■ 2. FRANTZIA	56
2.1. Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera	56
2.2. Errealitate enpirikora hurbilketa: beste datu batzuk	58
■ 3. ALEMANIA	61
3.1. Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera	61
3.2. Errealitate enpirikora hurbilketa: beste datu batzuk	62
■ 4. LABURPENA ETA HAUSNARKETA KONPARATUAK	63
1. ERRESUMA BATUA	63
2. FRANTZIA	66
3. ALEMANIA	67
<b>3. ERABEREAN SAREAREN TXOSTENA</b>	69
<b>4. AZKEN SINTESIA ETA ONDORIOAK</b>	74
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	77
<b>IRUDIEN AURKIBIDEA</b>	81
<b>ERANSKINA I. PRENTSAN NABARMENDU DIREN KASUAK 2020an</b>	84
<b>II. ERANSKINA EAE-ko FISKALTZA NAGUSIAREN ETA ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIAREN 2020-ko MEMORIEN LABURPENAK (2019 EKITALDIA)</b>	104

# LABURDURAK

<b>ACPOS</b>	<i>Association of Chief Police Officers in Scotland</i>
<b>AGE</b>	Auzitegi Gorenaren Epaia (Espainia)
<b>AGIFUGI</b>	Asociación Gitana por el Futuro de Gipuzkoa
<b>APNI</b>	<i>Alliance Party</i> (Ipar Irlanda)
<b>art.</b>	Artikulu(k)
<b>CCOO</b>	Comisiones Obreras
<b>CDA</b>	<i>Crime and Disorder Act 1998</i> (Erresuma Batua)
<b>CEAR</b>	Comisión Española de Ayuda al Refugiado
<b>CHS</b>	<i>Criminal History System</i> (Eskozia)
<b>CITE</b>	Centro de Información al Trabajador Extranjero
<b>CJNIO</b>	<i>Criminal Justice (No. 2) (Northern Ireland) Order 2004</i> (Ipar Irlanda)
<b>CJSA</b>	<i>Criminal Justice (Scotland) Act 2003</i> (Eskozia)
<b>CLCS</b>	<i>Criminal Law (Consolidation) (Scotland) Act 1995</i> (Eskozia)
<b>CMS</b>	<i>Crime Management System</i> (Eskozia)
<b>COPFS</b>	<i>Crown Office and Procurator Fiscal Service</i> (Eskozia)
<b>CRMS</b>	<i>Contact Record Management System</i> (Ipar Irlanda)
<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>EAO</b>	Estatuko Aldizkari Ofiziala
<b>ICIS</b>	<i>Integrated Crime Information System</i> (Ipar Irlanda)
<b>INE</b>	Instituto Nacional de Estadística (Espainia)
<b>IVPD</b>	<i>Interim Vulnerable Persons Database</i> (Eskozia)
<b>JANI</b>	<i>Justice Act (Northern Ireland) 2011</i> (Ipar Irlanda)
<b>LGTB(I)</b>	Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualak
<b>LO</b>	Lege Organikoa
<b>M</b>	Milioiak
<b>n</b>	Kasu kopurua
<b>NIHRC</b>	<i>Northern Ireland Human Rights Commission</i>
<b>or.</b>	Orrialdea(k)
<b>OAPSA</b>	<i>Offences (Aggravation by Prejudice) (Scotland) Act 2009</i>
<b>OBFTCSA</b>	<i>Offensive Behaviour at Football and Threatening Communications (Scotland) Act 2012</i>
<b>OCMT</b>	<i>Occurrence &amp; Case Management Teams</i> (Ipar Irlanda)
<b>PKL</b>	Prozedura Kriminaleko Legea
<b>POA</b>	<i>Public Order Act 1986</i> (Erresuma Batua)
<b>PONIO</b>	<i>Public Order (Northern Ireland) Order 1987</i>
<b>PPS</b>	<i>Public Prosecution Service for Northern Ireland</i>
<b>Rec.</b>	Errekurtsua
<b>RJ</b>	Aranzadi Jurisprudentzia Biltegia
<b>SCRS</b>	<i>Scottish Crime Recording Standard</i>
<b>STC</b>	Sentencia del Tribunal Constitucional (Espainia)
<b>STS</b>	Sentencia del Tribunal Supremo (Espainia)
<b>STORM</b>	<i>System for Tasking and Operational Resource Management</i> (Eskozia)
<b>UUP</b>	Ulsterreko Alderdi Unionista
<b>ZK</b>	Zigor Kodea
<b>Zuz.</b>	Zuzendaria(k)

## SARRERA

**2018ko ekainaren 4an Eusko Legebiltzarrean** (Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoko Batzordea) Gorroto-gertakari buruzko lehen Txosten ofiziala aurkeztu zenetik, 2020 urteari dagokion dokumentu hau jarraian egiten den laugarren urtea da. Beraz, bosturteko oso baten (2016-2020) datuen azterketa eskuragarri dugu, tresna horri nolabaiteko ikuspegia eta finkapena ematen diona.

Txostenaren helburua, komenigarria da errepikatzea, lehenik eta behin, gorroto-kriminalitatea epe ertain eta luzean hobeto ezagutzea, prebenitzea eta modu eraginkorragoan desagerraraztea da. Gainera, bigarrenik, operadore juridikoekiko koordinazioa erraztu nahi da, bai eta Txostena elementu lagungarri bihur dadin sustatu gorroto-delituarekin lotutako lan-esperientzia nazioarteko instantzietara eramateko.

Euskadiko Gorroto Gertakarien Laugarren Txosten hau, beraz, **2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra** arteko aldiari dagokio, eta, bere aurrekariak ez bezala, delitu izan daitezkeen gertakariak zeinak beren izaera eta inguruabarrengatik Euskal Poliziari (Ertzaintza) jakinarazi zitzaizkionak hartzen ditu bakarrik kontuan.

Pandemiaren agerpenak eta honek gaueko aisialdiaren eta kirol-ikusketaren eremuen garapenean modu zuzen eta zorrotzean eragin izanak eragin du aurten, distorsioak saihesteko, jarduera-sektore horiei dagozkien arau-hauste administratiboen erregistrorik ez sartzea.

Adierazitakoez gain, 2020ko txostenak egitura finkatua aurkezten du. Lehenik eta behin, delituak izan daitezkeen gorroto-gertakarien 2020ko informazioa eta analisisia lantzen da (lehen puntua). Bigarrenik, Europako eremuarekin azterketa konparatuaren berri ematen da (bigarren puntua). Berria da aurten, hala ere, azken horrek gure kultura juridikoaren eremuko herrialde garrantzitsuenen (Alemania, Frantzia, Ingalaterra eta Gales) nahiz Eskozia eta Ipar Irlandaren datuak eguneratu izana. Era horretan, konparaketaren ikuspegia batu eta eguneratu egiten da, bai arlo eta pisu demografiko horretan tradizio handia duten herrialdeei dagokienez, bai guretik hurbilen dagoen esperientzia federala irudikatzen duten herrialdeei dagokienez. Horrela, herrialde horietako datuen bilakaeraren jarraipena egin daiteke, aurreko txostenetan jasotako ahaleginen arabera.

Aurten berrikuntza bat dago, hirugarren puntuan sartzen dena: Eraberean Sareak aurkezten dituen txostenen azterketa laburra. Ez da analisi kritikoaren atal bat, baizik eta gaiaren ikuspegia zabaltzeko saiakera bat. Izan ere, Sare honen txostenak informazio-iturri baliotsua dira xede-kolektiboekin duen zuzeneko harremanagatik, eta horrek diskriminazio-errealitateetara eta gorroto-gertakari potentzialetara iristea ahalbidetzen du, polizia-detekzioaren erreia alde batera utzita. Ikuspegi horretatik, txosten honetatik beste informazio-foku horretara begiratu nahi da, etorkizunean, agian, informazioen elkarren arteko osagarritasuna bilatzeko nolabaiteko hurbilketa ahalbidetuko duten harreman-puntuak ezartzen joateko. Hori guztia, noski, zifra beltza hobeto argitzeko helburuarekin.

Amaitzeko, Txostena sintesiaren eta ondorioen ohiko blokearekin ixten da, instrumentalagoak (bibliografia, irudien aurkibidea) eta informatzaileagoak (I. eta II. eranskinak: prentsan nabarmendutako kasuak; Euskadiko Fiskal Nagusiaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memorien laburpena, hurrenez hurren) diren atalek jarraitzen diotelarik.



# 1. GORROTO GERTAKARIAK 2020

# 1. GORROTO GERTAKARIAK 2020

2020an delitu izan daitezkeen 241 gertakariak erregistratu dira Euskadin. Hala ere, urte honetan ez dira sartu arau-hauste administratiboak. Pandemiak sortutako egoera da horren arrazoia, hain zuzen ere, txosten hau elikatzen duten arau-hausteeetan eragina izan baitu: kirol-ikuskizunei eta onarpen-eskubideari buruzkoetan. Arlo horiek ostalaritzari eta gaueko aisialdiari lotuta daude batez ere, eta, jakina denez, haien jarduerak behera egin du nabarmen. Izan ere, alde batetik, ezin izan da kirol-ikuskizunik egin publikoarekin, eta, bestetik, ostalaritzako eta gaueko aisialdiko lokalen erabilera mugatu egin da etxeratze-aginduaren eta ostalaritza irekitzeko murrizketen ondorioz, balizko biktimak eta erasotzaileak elkartzeko aukeren murrizketa ekarri duena. Distortsio horrek aholkatzen du administrazioko arau-hausteen isla aurten erregistro guztietatik kanpo geratzea.

Ondorengo grafikoek azken 5 urteetako gorroto-delituen bilakaera erakusten dute, hurrenez hurren. Ikus daitekeenez, delitu-gertakarien kopurua esponentzialki igo da azken urtean, eta horrek azalpen bat eskatzen du. Aurreko urteetan datuak biltzen eta erregistratzen izandako esperientziari, Ertzaintzaren eta unibertsitatearen arteko elkarlanari eta prestakuntza areagotzeari esker, gertakari mota horiei buruzko informazioaren detekzioa eta zentralizazioa aldatu eta hobetu ahal izan da. Hori dela eta, delitu-gertakariak ugaritu egin dira, eta hori poliziaren eraginkortasun handiagoari egotz dakioke, hauek detektatzeko eta erregistratzeko orduan. Aurreko txostenetan iragarrita zegoen agertoki hori: bilatutako agertoki bat da; izan ere, txostenaren helburua da, besteak beste, gertakari horien instruktoreen kontzientzia eta prestakuntza teknikoa hobetzea, zifra beltza argitzen joateko. Polizia-jarduera tokian bertan hobetzearen eta erregistro-sistematikaren ondorioz izandako gorakada, beraz, egiaztapen positiboa eta itxaropentsua da; izan ere, argazki errealago bat argitara ateratzeko aukera ematen du, ezkutatuta geratuko ez balitz bezala, xede diren kolektiboen defentsa-gabezia eta biktimizazioarekin. Gaur egun, Euskadin, detekzio polizialeko antenak hobetu egin dira, eta, hurrenez hurren, zigorgabetasuna murriztu egin da.

Nolanahi ere, urrats horrek ez du saihesten gorroto-gertakarien erregistroko gorabeheri<sup>2</sup> kasu egiten jarraitu behar izateak, arrazoi anitzeko azalpenak bilatzeari dagokionez; izan ere, nahiz eta gutxituz joan, delitu horiek jasaten duten zifra beltza oso handia da oraindik ere<sup>3</sup>, eta horrek eragotzi egiten du biktimizazioaren benetako irismena ezagutzea, bai eta 2020an burututako gorroto-delituen kopurua hainbeste handitu den jakitea ere<sup>4</sup>.

<sup>1</sup> Txosten honetan jasotako gertakariak 2020an erregistratutako gertakariak dira, alde batera utzita urte horretan gertatu diren ala ez. Izan ere, 9 delitu aurreko 2020an burutu ziren.


<sup>2</sup> Txosten honetan ikus daitekeenez, gorabeherak izan dira gorroto gertakari zein delituen erregistroan, batez ere azken urteari dagokionez, arestian aipatu moduan. Horiek zehazki aztertu behar dira, erregistratutako kasuen kopurua txikia delako, bai eta polizia-estatistiken balioa mugatua ere. Izan ere, gorroto gertakariak biltzeari dagokionez, badirudi gaiak duen prekaritatearen ondorioz zifra beltz handia dagoela, jarraian aipatuko den bezala. Hori dela eta, gerta liteke 2020an gertakarien bilketan emandako gorakada nabarmena datuak biltzeko sistematan gertaturiko hobekuntzen ez ezik, babestutako kolektiboek Segurtasun Indar eta Kidegoekiko konfiantza (edo mesfidantza) areagotzearen edo talde horien salaketak jasotzen dituzten Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteen prestakuntza hobetzearen ondorio ere izatea, besteak beste, eta ez nahitaz delitu-fenomeno hori benetan areagotu delako. LANDA GOROSTIZA, J.M., "El mapa de odio, ... op. cit., 17. orr. Polizia-estatistiken balio mugatuari buruz sakontzeko, kriminalitatearen benetako irismena ezagutzeko iturri bakarra den aldetik, ikusi GARCÍA ESPAÑA, E./DÍEZ RIPOLLÉS, J.M./PÉREZ JIMÉNEZ, F./BENITEZ JIMÉNEZ, M.J./CEREZO DOMÍNGUEZ, A.I./ (2010), "Evolución de la delincuencia en España: Análisis longitudinal con encuestas de victimización", *Revista Española de Investigación Criminológica*, Art. 2, Núm. 8, *passim*.

<sup>3</sup> Gorroto-delituen zifra beltza salatzen ez diren, eta ondorioz, Segurtasun Indar eta Kidegoek ezagutzen ez dituzten delituek osatzen dute. VOZMEDIANO SANZ, L./SAN JUAN GUILLÉN, C., *Criminología ambiental: ecología del delito y de la seguridad*. Editorial UOC: Barcelona, 2010, *passim*.

<sup>4</sup> MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime. understanding communities and prejudice*, Routledge, Oxon, 2017, pág. 127.



Izan ere, ikerketa batzuek, Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziaren datuetan oinarrituta (FRA, ingelesez), zifra beltz hori %80 inguruan kokatzen dute, erreferentiazko kolektiboen artean aldeak dauden arren<sup>5</sup>.



## ■ 1.1 GORROTO GERTAKARIEN BANAKETA



Jarraian ikus daitekeen bezala, kolektiboen mapak eraldaketa sakona izan du azken urte honetan. Aurreko urteetako ildo beretik, izaera arrazista edo xenofoboa duten delituek biltzen dituzte erregistratutako delitu gehienak ( $n=117$ ; %48,55), nahiz eta hauen aurreko urtekoa baino nabarmen handiagoa izan. Hau, neurri batean, gertatu den eta aurreko atalean jada aipatu den bilketa-sistemaren aldaketaren ondorio izan daiteke.

Horien atzetik sexu-orientazioaren eta -identitatearen aurkako delituak ( $n=50$ ; %20,75) eta dibertsitate funtzionalaren aurkakoak ( $n=29$ ; %12,03) datoz. Alde horretatik, nabarmentzekoa da azken urte honetan bi kolektiboen aurka burututako delituak ia hirukoiztu egin direla lehenengo kasuan, eta laukoiztu egin direla bigarrenean; izan ere, lehenengoa hirugarren kolektibo biktimizatuena izatetik bigarren kolektiboa izatera igaro da, eta bigarrena, berriz, bosgarren kolektibo biktimizatuena izatetik hirugarrena izatera igaro da. Ideologia eta orientazio politikoan oinarritutako gorroto-delituei dagokienez ere ( $n=24$ ; %9,96), gorakada izan dute aurreko urtearekin alderatuta, nahiz eta ez den aurreko kolektiboetan bezain nabarmena.


<sup>5</sup> Zifra beltz handi hori hainbat arrazoiengatik izan daiteke: biktimen salatzeak mesfidantza eta beldurra, edota delituak jasotzeaz eta sailkatzeaz arduratzen diren organo publikoek gorroto-delituetan prestakuntzarik ez izatea. Aurrekoari poliziaren aurrean salatzen ez diren gorabeherak gehitu behar zaizkio, baina bai beste instantzia batzuei, hala nola fiskaltzari edo guardiako epaitegiei. Horregatik, garrantzitsua da zifra beltza pixkanaka argitzea ahalbidetzen duten beste tresna batzuk ere kontuan hartzea, hala nola biktimizazio-inkestak edo GKEk egindako txostenak, Erabereanekoa bezala (ikus *infra* txosten honen 3. atala) hainbat iturritako datuak ematen dituztenak eta poliziaren estatistiken osagarri direnak. ACHUTEGUI OTALAUERRUCHI, P., "Victimización de los delitos de odio. Aproximación a sus consecuencias y a las respuestas institucional y social", *Revista de Victimología/Journal of Victimology*, Núm. 5, 2017, 36 eta ss orr. Véase también, LANDA GOROSTIZA, J.M., "El mapa de odio, ... op. cit., 6 eta ss orr.

Bosgarrenik, biktimaren sexuan oinarritutako gorroto-delituak daude, azken urte horretan laukoiztu direnak (n=16; %64). Horren arrazoa izan daiteke, datuak biltzeko sisteman izandako aldaketatik harago, aldagai hori bigarren urtez jarraian modu autonomoan jasotzen dela, eta, beraz, salaketak jasotzeaz arduratzen diren pertsonak gehiago ezagutu dezaketela aldagai hori. Hala ere, aldagai hori bi urtetan bakarrik jaso denez, ezin da ikusi aztertutako bost urteetan izandako bilakaerarik, orain arte aipatutako gainerako aldagaiekin gertatzen den bezala.


Bestalde, aporofobiak (n=2), antisemitismoak (n=1), adinak (n=1) eta sinesmen eta praktika erlijiosoek (n=1) erregistratutako delituen %2,06a osatzen dute. Ikus daitekeenez, aporofobia da aurreko urteetako antzeko kopurua duen kolektibo bakarra; sinesmen eta praktika erlijiosoetan oinarritutako gorroto-delituak, berriz, nabarmen murriztu dira, nahiz eta erregistratutako gertakariak ugaritu egin diren. Antisemitismoaren eta adinaren kolektiboek dagokienez, berriz, ezin da inolako bilakaerarik antzeman; izan ere, aurtengoa da mota horretako datuak jasotzen diren lehen urtea.




Arrazismo eta xenofobiako delituei buruzko datuei erreparatuz gero, honako kolektibo hauetan bana daitezke: Arabiarra ( $n=29$ ; %24,79), Asiarra ( $n=1$ ; %0,85), Ijitoa ( $n=9$ ; %7,69), Beltza ( $n=24$ ; %20,51), Herritartasuna/Jatorria ( $n=25$ ; %20,36), Latinoa/Latinoamerikarra ( $n=17$ ; %14,53), eta Zehaztu gabe ( $n=37$ ; %31,62).



Ariketa hori bera sexu-orientazioaren eta -identitatearen aurkako gorroto-delituekin eginez gero, ikus daiteke kolektiborik biktimizatuena gay-a dela ( $n=31$ ; %62), gainerakoekin alderatuz baino askoz gehiago. Bigarrenik, transgenero kolektiboa dago, mota horretako gertakarien bostena biltzen duena ( $n=10$ ; % 20).



Azkenik, dibertsitate funtzionalagatik biktimizatuak diren pertsonen dagokienez, desgaitasun mentala duten pertsonak dira kaltetuenak, mota horretako gertakarien ia heren bat biltzen baitute ( $n=9$ ; %31,03).



### 1.1.1 Gorroto delituen sailkapena delitu-tipologiaren arabera

Delitu-tipologia nagusien dagokienez, hurrengo grafikoak adierazten du lesioak (71 kasu, aurreko urtean erregistratutako kasuen hirukoitza), mehatxuak (53 kasu, aurreko urtean identifikatutako bikoitza), derrigortzeak (30 kasu) eta tratu apalesgarria (30 kasu) direla nagusi, gainerako tipologiak baino askoz kopuru handiagoarekin. Hala ere, delitu larriagoen prebalentzia, lesioen moduan, zehaztasun kontuan hartua izan behar da; izan ere, hainbat ikerketen arabera, hain larriak ez diren gorroto-delituen biktima askok uste dute poliziak "ezin izango duela asko egin" horrelako delituetan, eta, ondorioz, ez dira salatzen<sup>6</sup>.


Neurri txikiagoan, gorroto-diskurtsoa ere nabarmentzen da (14 kasu). Azken tipologia horri dagokionez, deigarria da aurreko urteetan zuen prebalentzia argia galdu izana, hirugarren delitu-kategoria nagusia izatetik bosgarrena izatera igaro baita. Edonola ere, aurreko txostenetan adierazi den bezala, gorroto-diskurtso gisa kalifikatutako kasuak erreserbekin hartu behar dira kontuan, izaten duten ibilbide judicial eskasa dela eta.

<sup>6</sup> MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime*, ... op. cit., 89. orr


Era berean, nabarmentzekoa da bi sexu-eraso delitu eta hilketa kasu bat (burutu gabea) egon direla.

- **Sexu-erasoak:** 181. artikulua ZK.
- **Mehatxuak:** 169., 170. y 171. artikulua ZK.
- **Bidegabe jabetzea:** 253. artikulua ZK.
- **Zilegi ez den elkartea:** 515. artikulua ZK.
- **Kalumniak:** 206. artikulua ZK.
- **Derrigortzeak:** 172. artikulua ZK.
- **Kalteak:** 263 eta 266 artikulua ZK.
- **Bereizkeriarengatik prestaziorik ez ematea:** 511. artikulua ZK.
- **Sekretuak ezagutarazi eta agerraraztea:** 197. artikulua ZK.
- **Legezkontrako atxiloketa:** 163. artikulua ZK.
- **Estortsioa:** 242. artikulua ZK.
- **Desordena publikoak:** 557. artikulua ZK.
- **Gorrotodiskurtsoa:** 510. artikulua ZK.
- **Gizahilketa:** 138. artikulua ZK.
- **Ebasketa:** 234. artikulua ZK.
- **Irainak:** 209. artikulua ZK.
- **Lesioak:** 147. eta 153. artikulua ZK.
- **Agintaritzaren aurkako jarritzea edo atentatua:** 550. artikulua ZK.
- **Lapurreta:** 242. artikulua ZK.
- **Tratu apalesgarria:** 173. artikulua ZK.
- **Hauteskundearen legediaren aurkako arau-haustea.**

### DELITU-TIPOLOGIAK (2020, N=241)




Hurrengo grafikoan delitu-tipologiaren bilakaera 2016tik gaur egunera arte erakusten da<sup>7</sup>. Bertan ikus daitekeenez, tipologia jakin batzuen burutzeak aldaketa handirik izan ez duen bitartean, kasuen erregistroa handitu arren (adibidez, agintaritzaren aurkako jarkitzea/atentatua), delitu-tipologia gehienek gorabehera handiak izan dituzte. Hori da lesioen kasua; 2017an nabarmen handitu eta 2018an mantendu ondoren, 2019an beherakada handia izan dute, eta 2020an, berriz, nabarmen handitu dira. Antzeko zerbait argudia daiteke mehatxuei dagokienez, zeinak 2017an behera egin zuten, 2018an apur bat handitu ziren, 2019an berriro jaitsi ziren eta 2020an asko handitu ziren.



Jarraian, delitu-tipologia nagusiak aztertzen dira, hau da, mehatxuak, derrigortzeak, gorroto-diskurtsoa, lesioak eta tratu apalesgarria, kolektibo desberdinekiko, kolektibo batzuek beste batzuek baino delitu mota batzuk jasateko joera handiagoa duten jakiteko. Hala, datuek erakusten dute arraza-kolektiboa dela mota horretako delituak gehien jasaten dituenen, batez ere lesioen, mehatxuen eta derrigortzeen biktima izanik. Era berean, nabarmentzen da sexu-kolektiboa izatea, alde handiarekin, lesio gehien jasaten dituen hirugarren kolektiboa.


<sup>7</sup>Grafikoan urteetan zehar jarraitutasuna izan duten delitu-tipologiak bakarrik islatu dira, hots, aztertutako urte guztietan agertu diren tipologiak, urte batean edo bitan bakarrik agertzen zirenak alde batera utzita.

**DELITU-TIPOLOGIAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2020)****1.1.2. Gorroto delituen banaketa espaziala**


241 delituak lurralde historikoetan zehar banatzeko moduari dagokionez, ondorengo grafikoak erakusten du Bizkaiak gorroto-delituen erdiak baino gehiago kontzentratzen dituela ( $n=128$ ), Gipuzkoan laurden bat ( $n=64$ ), eta Araban bosten bat baino pixka bat gutxiago ( $n=44$ ) biltzen diren bitartean. Honetaz gain, 3 kasutan ezin izan da lurralde historikoa identifikatu, eta 2 beste probintzia batzuetan gertatu dira (bata Kantabrian eta bestea Asturiasen).

**DELITUAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2020, N=241)**

LOKALIZATU GABE / BESTE PROBINTZIAK



Segidan, gorroto-delituen banaketa aurkezten da udalerrri-mailan<sup>8</sup>. Bosgarren urtez jarraian, probintzia-hiriburuak nabarmentzen dira: Bilbo ( $n=43$ ), Gasteiz ( $n=32$ ) eta Donostia ( $n=15$ ). Hauetaz gain, udalerrri hauek nabarmen-tzen dira: Barakaldo ( $n=19$ , Donostia gaituz erregistratutako delituen kopuruan) eta Getxo ( $n=9$ ), Bizkaian, eta Irun ( $n=10$ ), Gipuzkoan.




<sup>8</sup> Grafiko honetan, EAEn gertatu diren delituak soilik jasotzea erabaki da, eta kanpoan utzi dira, han erregistratu arren, lurralde horretan bakarrik salatu direnak, zeinen burutze lekua ez den benetan Euskadi izan.



Udalerrri horien prebalentzia ez da harritzekoa; izan ere, INE-ren datuen arabera, Barakaldo eta Getxo dira Bizkaiko bigarren eta hirugarren udalerrri populatuena, eta, Bilborekin batera, biztanleriaren %45,66 biltzen dute<sup>9</sup>. Gauza bera esan daiteke Iruni dagokionez: Gipuzkoako bigarren udalerririk populatuena dena, eta Donostiarekin batera, lurralde historiko horretako biztanleriaren %35,54 biltzen dute<sup>10</sup>. Aurreko guztia bat dator, gorroto-delituak bolumen, dentsitate edo pertsona-mugimendu handia edo trafiko handia dagoen lekuetan burutzen direla dioten ikerketekin<sup>11</sup>.

Arrazakeria eta xenofobiako 117 delituei soilik erreparatuz gero, ikus daiteke, aurreko urteen ildotik, Bizkaiak bosgarren urtez jarraian kasu gehienak pilatzen jarraitzen dituela: erregistratutako 117 kasuetatik 64 (%54,7). Gipuzkoan erregistratutako kasuak, berriz, nabarmen ugari dira, 31 kasu (%26,5), 2019. Urteko datuekiko bikoitza. Araban, berriz, 20 kasu erregistratu dira (%17,09), aurreko urtean baino 4 aldiz gehiago. Bestalde, bi delitu erregistratu dira, zeinetan burutu den lurraldea ez da identifikatu<sup>12</sup>.




<sup>9</sup> Informazio gehiago behar izanez gero, ikus ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN (INE) web orria, Bizkaiaiko biztanleriaren zifra ofizialak jasotzen dituen kontsultarako: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2905#!tabs-tabla>.

<sup>10</sup> Informazio gehiago behar izanez gero, ikus ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN (INE) web orria, Gipuzkoako biztanleriaren zifra ofizialak jasotzen dituen kontsultarako: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2873#!tabs-tabla>.


<sup>11</sup> IGANSKI, P., *Hate crime and the city*, Policy Press, Bristol, 2008, *passim*.

<sup>12</sup> Jatorrizko probintzia identifikatu ezin izan diren 3 gorroto-delitu horietatik, 2 Interneten egin ziren (hortik lurraldea identifikatzeko ezintasuna) eta beste bat telefonoz egin zen. Bestalde, beste bi delitu etxebizitza batean eta ostalaritza-lokal batean gertatu ziren, Asturiasen eta Kantabrian, hurrenez hurren, baina Euskadin salatu ziren.

Aitzitik, biktimaren sexu-orientazioan oinarrituta burututako 50 gorroto-delituei erreparatuz gero, ikus daiteke gertakari gehienak Bizkaian (%50) eta Gipuzkoan (%40) gertatu direla.



Biktimaren dibertsitate funtzionalan oinarritutako kasuei dagokienez, bi heren Bizkaian erregistratuak izan ziren (20 kasu). Gainerako 9 kasuetatik, 4 Araban gertatu ziren eta 5 Gipuzkoan.



Ertzaintzak erregistratutako ideologiaren eta/edo orientazio politikoaren aurkako 24 delituei dagokienez, 11 Bizkaian gertatu ziren, 9 Araban, 3 Gipuzkoan eta 2 ez ziren identifikatu.

Hurrengo laburpen-taulan, kolektibo desberdinen aurkako gorroto-delituak burutuak izan diren lurralde historikoak agertzen dira, bai eta horien aldakuntza ere, aurreko urtearekin alderatuta.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BESTE PROBINTZIAK <sup>13</sup>	TOTALA	+ - (2019)	%
<b>ANTISEMITISMOA</b>	-	-	1	-	1	-	0
<b>SINESMEN/PRAKTIKA ERLIJIOSOAK</b>	-	1	-	-	1	-6	-%85,71
<b>ADINA</b>	-	1	-	-	1	-	0
<b>APOROFOBIA</b>	2	-	-	-	2	-1	-%33,33
<b>SEXUA</b>	5	6	4	1	16	13	%433,33
<b>IDEOLOGIA/ORIENTAZIO POLITIKOA</b>	8	11	3	2	24	6	% 33,33
<b>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</b>	4	20	5	-	29	23	%383,33
<b>SEXU-ORIENTAZIO/IDENTITATEA</b>	5	25	20	-	50	37	%284,62
<b>ARRAZISMOA/XENOFOBIA</b>	20	64	31	2	117	62	%112,73
<b>TOTALA</b>	<b>44</b>	<b>128</b>	<b>64</b>	<b>5</b>	<b>241</b>	<b>136</b>	<b>%129,52</b>

Hurrengo grafikoan, gorroto-delituen banaketa espaziala ere aztertzen da, baina, oraingo honetan, delituaren komisiio-lekuan jartzen da arreta. Ikus daitekeenez, bide publikoek komisiio-lekuen herena baino gehiago biltzen dituzte, zehazki, kasuen %38,59a.

Edonola ere, "bide publiko" gisa sailkatutako agertokien kokapen zehatza galde liteke. Izan ere, nahiz eta, *stricto sensu*, komisiio-leku batzuk espazio publiko gisa etiketatu daitezkeen (kaleak, bidezidorak, parkeak, etab.), hainbat ikerketek erakutsi dute poliziaren estatistikek horrela izendatzen dutena, askotan, biktimaren etxetik oso gertu dauden lekuak direla<sup>14</sup>. Hori, hots, gorroto-delituen ehuneko handi bat biktimaren etxebizitzan edo inguruan gertatzea, erabakigarria da; izan ere, kasu horietan, erasoaren ondoriozko eragin psikologikoa handiagoa izan daiteke<sup>15</sup>, eta biktimaren familiari ere eragin diezaiokete<sup>16</sup>.

Etxebizitzak, ordea, komisiio-lekuen %21,16 dira. Aurrekoari "etxebizitzako edo gune komunitario beste eremu batzuk" izeneko espazioak gehitzen bazaizkio<sup>17</sup>, espazio horietan gertatutako gorroto-delituak %25,31 dira guztira.

<sup>13</sup> "Beste probintziak" izenak Ertzaintzak identifikatu ezin izan dituen delituei egiten die erreferentzia (adibidez, Interneten burutuak izategatik), bai eta delitua beste probintzia batean egin zen kasuei ere, salaketa Euskadin jarri bazen ere.

<sup>14</sup> Ikusi, zentzu honetan, hurrengo ikerketak: MASON, G., "Being hated: Stranger or familiar?", *Social & Legal Studies*, Vol.14, nim. 4, 2005, 593-594 orr.; eta MCDEVITT, J./BALBONI, J./GARCIA, L./GU, J., "Consequences for victims: A comparison of bias- and non-bias-motivated assaults", *American Behavioral Scientist*, Vol.4, núm. 4, 2001, *passim*.

<sup>15</sup> SCHEPPELE, K. L./ BART, P. B., "Through women's eyes: Defining danger in the wake of sexual assault", *Journal of Social Issues*, Vol. 39, núm. 2, 1983, *passim*.


<sup>16</sup> CHAKRABORTI, N./GARLAND, J./HARDY, S. J., *The leicester hate crime project: Findings and conclusions*. University of Leicester, Leicester, 2014, *passim*. Online sarbidea <https://www2.le.ac.uk/departments/criminology/hate/documents/fc-full-report>

<sup>17</sup> Eremu hau zentzu zabalean ulertu behar da, etxebizitzatik gertu dauden espazioak, eraikinaren ataria, eskailerak zein eskaileraburuak, eta postontzia, besteak beste, hartzen baititu kontuan.

Hirugarrenik, ostalaritza, aisialdiko eta antzeko lokalak daude, zeinen ehunekoak erdira murriztu den. Gogorazi behar da lokal horiek izan direla pandemiaren murrizketak gehien jasan dituztenak, 2020an zehar hainbat aldiz itxi behar izan baitute; beraz, ez da harrizkoa inguru horretan gertatutako delituen ehunekoak behera egin izana.

Eremu horietan gorroto-delituak kontzentratzeari buruzko azalpen posible bat biktimen ohiko jardueretan aurki daiteke; beste hitzetan, biktimek beren eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituzten tokiak, hala nola beren etxetik gertu daudenak edo erabili ohi dituzten merkataritza- edo elikadura-establezimenduen ingurukoek, gorroto-delituaren agertoki izateko probabilitate handiagoa izan dezakete<sup>18</sup>.


Internet laugarren postuan dago, delituen %7,47a bilduz. Ez da harrizkoa aurten ingurune birtualean egindako delituak hirukoiztu izana, ostalaritzako eta aisialdiko lokalak ia berdinduz; izan ere, jakina da Covid-19 pandemiaren ondorioz ezarritako mugikortasun-murrizketek eragina izan dutela azken eremu horretan, eta, aldi berean, Internet erabiltzea bultzatu dela, zenbait jarduera aurrez aurre egitearen alternatiba gisa. Izan ere, sarean izandako 18 gertakarietatik %38,9 (7 kasu) martxoan, apirila eta maiatzan zehar erregistratu ziren.




<sup>18</sup> MCNEELEY, S./OVERSTREET, S. M., "Lifestyle-routine activities, neighborhood context, and ethnic hate crime victimization", *Violence and Victims*, Vol. 33, 2018, 16 eta ss orr.

Jarraian, komisiio-lekuei buruzko datuak aurkezten dira, biktimizatutako kolektiboaren arabera. Horretarako, lehen aldiz, komisiio-leku guztiak banakatzen dituen grafiko bat erantsi da. Bide publikoari eta etxebizitzari dagokienez, ondorioztatu da bi lekuetan gorroto-delitu ohikoena arrazistak eta xenofoboak direla (%49,46 bide publikoaren kasuan eta %51 etxebizitzaren kasuan). Deigarria da, halaber, biktimaren dibertsitate funtzionalan oinarritutako gorroto-delituen %27,6, sexuan oinarritutako delituen %25, arrazakeria/xenofobia delituen %22,22 eta sexu-orientazioan eta -identitatean oinarritutako delituen %20a biktimaren etxean bertan burutu izana, halako moduan non gune hori ere ezin baita jo babes segurutzat, balizko aurreiritzietan oinarritutako erasoaren aurrean babesteko. Ildo beretik, deigarria da, dibertsitate funtzionalaren kasuan, etxebizitzaren ondoren horrelako gertakari gehien erregistratu diren bigarren lekua ikastetxea izatea, bai eta hori izatea normalean gertakari arrazista eta xenofoboak gertatzen diren lekuetako bat (nahiz eta beste leku batzuetan baino proportzio txikiagoan).

### ETXEBIZITZAN ETA HIRI BIDE PUBLIKOAN GERTATURIKO DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2020, N=144)






Halaber, Internet bidez egindako 18 delitu identifikatu dira, aurreko urtean baino hiru aldiz gehiago. 6 (%33,33) biktimaren ideologia eta orientazio politikoan oinarrituta egin ziren; 4 (%22,22) sexu-orientazioan eta -identitatean oinarrituta eta biktimaren arraza/etnialan oinarrituta, hurrenez hurren; 3 (%16,67) biktimaren dibertsitate funtzionalatik eta, gainerako kasuetan (%5,56), bere sinesmen eta praktika erlijiosoengatik.


### 1.1.3. Gorroto delituen denbora-banaketa

Jarraian, delituen banaketa hilero, urtaroaren arabera, astero eta orduaren arabera aurkezten da, hurrenez hurren. Lehenik eta behin, gorroto-delitu gehien uztailean (%13,28), irailean eta urtarrilean (%12,03 bakoitza) eta otsailean (%9,54) gertatu direla esan daiteke.




Bigarrenik, delituen banaketa aztertzen da, egin ziren urtaroaren eta erreferentziako kolektiboaren arabera. Ikus daitekeenez, gorroto-delitu arrazista edo xenofoboak nagusitzen dira urtaro guztietan ehuneko homogeenoa samar batekin. Antzeko zerbait gertatzen da sexu-orientazioan eta -identitatean oinarrituta egindako gorroto-delituuekin, bai eta biktimaren dibertsitate funtzionalean oinarrituta burututako delituuekin ere, horien ehunekoa nahiko antzekoa baita urtaro guztietan. Estazioa erreferentziatzko unitate gisa aztertzean, 2020ko udaberrian zehar konfinamendu gogorrenak gorroto-delituen banaketan izan zezakeen eragina aztertu nahi zen, baina agerian geratu da horren intzidentziarik eza, gutxienez salatutako gertakariei dagokienez.


### DELITU-TIPOLOGIAK URTAROAREN ARABERA (2020)



Hirugarrenik, asteko egunaren arabera banaketari buruzko datuek adierazten dute gorroto-delitu gehienak asteazkenean (% 17,01), astelehenean (% 16,6) eta igandean (% 16,18) gertatzen direla.




Azkenik, ordu-banaketari dagokionez, gorroto-delitu gehienak berriro ere biltzen dira arratsalde eta gaua artean (%61), aurreko urteko ehuneko ia berdinarekin. Azalpena izan liteke, hain zuzen ere, ordu-tarte horretan dagoela kalean pertsonen bolumen edo mugimendu handiena, zeinak lanetik itzultzen edo aisialdiko hainbat jardura egiten ari diren (hala nola tabernak eta merkataritza-zentroak bisitatzeko, kirol-jarduerak egiten, etab.), biktimen eta erasotzaile potentzialen arteko topaketa eta balizko gatazka erraztu dezakeena. Gainera, badirudi joera hori ez dela aldatu 22:00etan ezarritako etxeratze-aginduagatik.






Ordu-tarteak erreferentziazko kolektiboaren arabera banakatzen badira, ikus daiteke tarte guztietan delituak arrazista/xenofoboak direla nagusi (eskuragarri ez dagoen tarte izan ezik), batez ere azken bi ordu-tarteetan (12:00-23:59), mota horretako delituen %66,67 biltzen baitute. Tarte horietan biltzen dira, sexu-orientazioan eta -identitatean oinarritutako gorroto-delituen %52, ideologia eta orientazio politikoan oinarritutakoen %70,83, dibertsitate funtzionalean oinarritutakoen %58,62 eta sexuan oinarritutakoen %56, bai eta adinean, aporofobian eta antisemitismoan oinarritutako guztiak ere, beharbada aurreko paragrafoan azaldutako arrazoiaren ondorioz. Dibertsitate funtzionalari dagokionez, nabarmentzekoa da kasuen ia %30ean ezin jakitea delitua zein ordu-tartetan egin den.

### DELITU-TIPOLOGIAK ORDUAREN ARABERA (2020)



## 1.2. EGOZPENEN BANAKETA<sup>19</sup>


Egotziei dagokienez<sup>20</sup>, hurrengo grafikoak erakusten du erdia baino gehiago espainiarrak direla (%63,52): 159 egotzietatik 101 dira, eta horietatik 86 Euskadikoak dira (%85,15). Gainerako egotziak, 58, atzerritarak dira (%36,47); horietatik gehienak Afrikakoak (%58,62), eta, neurri txikiagoan, Erdialdeko Amerikakoak eta Hegoaldekoak (%22,41) dira.




Espainiako Estatuko jatorriko probintziari dagokionez, Bizkaitik etorritako egotzien Kopuruak nabarmen egin du gora aurreko urtearekin alderatuta: kasuen herena izatetik ia erdia izatera igaro da (%43,69), 45 egotzirekin (Euskaditik datozen 86 egotzietatik (%52,32)). Hala ere, igoerarik nabarmenena Araban izan da, 2019an totalaren hamarren bat pasatxo izatetik 2020an kasuen laurdena barnebiltzera igaro baita (%26,74). Gipuzkoan, aldiz, kontrako fenomenoaren lekuko izan gara; izan ere, lurralde historiko horretatik datozen egozpenen kopurua murriztu egin da, guztizkoaren bostena izatera igaroz (%20,93).

<sup>19</sup> Egotziak -edo ikertuak 13/2005 LOK LeCrim erreformatu ondoren-, delitu baten burutzea egotzi zaien pertsonak dira, eta zeinen kontra Ertzaintzak polizia-eginbideak hasi dituen.


<sup>20</sup> Atal honetan, Ertzaintzak erregistratutako gorroto delituengatik ikertutako pertsonak aztertzen dira, haien jatorria edozein dela ere. Kontuan izan behar da 90 delituetan 241etik erasotzailea ezin izan dela identifikatua izan (%37,19), eta, ondorioz, delitu horiek burutu zituzten pertsonak ez ziren sailkatu ez ikertu ez atxilotu gisa. Era berean, kasu askotan delitu bakoitzagatik egotzitako/atxilotutako pertsona bat baino gehiago egon dira. Bestalde, ikerketa honen ondorioetarako ez dira kontuan hartuko gorroto delitu bat egin duten eta lurralde historiko horretan jatorria duten pertsonak, lurralde historiko horretan gorroto deliturik burutu ez badute.

**EGOTZIAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2020, N=103)**


Ondoren, udalerrri mailako egozpenen banaketa erakusten da. Bosgarren urtez jarraian, bereziki lurralde historikoetako hiriburuak nabarmentzen dira, Gasteiz  $n=21$ , Bilbo  $n=17$  eta Donostia  $n=7$ . Bestalde, egotzien ia bosten baten jatorrizko udalerrria ere Bizkaiko udalerrri nagusietako bat dela ikus dezakegu: Barakaldo  $n=16$ .

**EGOTZIAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2020, N=86)**

Sexuaren arabera banaketari erreparaturaz, hurrengo grafikoan 2020an 44 emakume (%27,67) eta 115 gizon (%72,32) egotzi zirela ikus daiteke. Nabarmenezkoa da inputatutako emakumeen ehunekoak nabarmen egin duela behera aurreko urtearekin alderatuta, eta aurreko 3 urteetako ia kopuru bera erakutsiz.




Egotzien batez besteko adina 37,3 urtekoa da<sup>21</sup>, eta adin-tartea 14 eta 72 urte artekoa da. Batez ere adin-tarte handienari dagokionez, 2017tik erregistratu ez diren mailetara jaitsi dela ikus daiteke. Egozpenak nahiko modu homogeneoan banatzen dira tarte hauetan: 18-29 urte (%23,9), 30-39 urte (%23,9), 40-49 urte (%20,75) eta 50-59 urte (%15,72); azken horiek kasuen %84,27 biltzen dituzte, 2019an lortutakoen antzeko zifrak. Gainerako tarteei dagokienez, 60 urtetik gorakoek %6,92 zenbatzen dute. Bestalde, nabarmendu behar da <18 urtekoen tartea nabarmen murriztu dela: 2019an 20 pertsona egotzi ziren, eta 2020an 14 (% 8,81).



<sup>21</sup> Batez besteko adina kontu handiz hartu behar da kontuan; izan ere, ikertutako pertsona baten kasuan, ezin izan da haren adina ezagutu, eta, beraz, ez da kontuan hartu batez bestekoa kalkulatzeko unean.


Hala ere, datu horiek sexuaren arabera banakatzen badira, ikus daiteke gizonak direla nagusi 3 adin-tarte baxue-netan. Izan ere, gizon erasotzaile gehienek 40 urte baino gutxiago dituzte (%61,74); emakume erasotzaileen kasuan, berriz, kopuru hori %43,18ra jaisten da.

### EGOTZIAK ADIN-TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2020, N=159)




Orobat, hurrengo grafikoan ikus dezakegu egozpen gehienak arrazakeriaren esparruan gertatu direla ( $n=84$ , %52,83), baina hori ez da harrizkoa, arrazoi horrekin burututako gorroto-delituaren ehuneko oso antzekoa dela kontuan hartzen badugu (%48,55). Jarraian, biktimaren sexu-orientazio eta -identitatearen ondorioz egingako gorroto-delituaren oinarritutako egotziak datoz ( $n=36$ , %22,64), dibertsitate funtzionalagatikoak ( $n=17$ , %10,69), eta sexuagatiko ( $n=10$ , %6,29).

### EGOTZIAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2020, N=159)




Azkenik, egotzien delitu-tipologiaren arabera banaketari erreferentzia eginez<sup>22</sup>, aurreko urtean ez bezala, egozpen gehienak lesioekin lotuta gertatu dira (%32,06), eta, *supra* esan bezala, nagusitzen den delitu-kategoria da. Bigarrenik, ordea, mehatxuengatik (%26,42) eta tratu apalesgarriagatik (%18,24) inputatutako pertsonak daude.




### 1.3. ATXILOKETEN BANAKETA

Ertzaintzak 49 pertsona atxilotu zituen 2020an, aurreko urtean baino sei aldiz gehiago. Jarraian, pertsona atxilotuen jatorria aztertzen da. Zifrek heterogeneotasun handiagoa erakusten dute, aurreko urtearekin alderatuta, bosten bat baino gehiago atzerritarrek baitira ( $n=11$ , %22,45). Atzerriko jatorria duten atxilotuen artean, Indiatik eta Marokotik etorritakoak nabarmentzen dira (totalaren %8,16 eta %6,12).


<sup>22</sup> Erasotzaile kopuruari buruzko ikuspegi orokorra izateko delitu-tipologiaren arabera, beharrezkoa da atxilotutako pertsonen buruzko grafikoa ere kontuan hartzea.

**JATORRIKO HERRIALDEA (2020, N=49)**

Espainiako nazionalitatea duten atxilotuen artean, %81,58 Euskadikoak dira. Euskal jatorriko ia atxilotu guztiak Gipuzkoatik (%42,11) eta Bizkaitik (%6,84) datoz, bereziki, biztanle gehien dituzten bi udalerritatik, Donostiatik ( $n=8$ , %25,81) eta Barakaldotik ( $n=8$ , %25,81). Nabarmentzeko modukoa da, haatik, atxilotuetako bat ere ez dela Bilbokoa, nahiz eta atxilotuen ia erdiak Bizkaikoak izan.


**ATXILOTUAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2020, N=38)**

### ATXILOTUAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2020, N=31)




Ezaugarri demografikoei erreparatuz, nabarmentzekoa da atxilotu gehienak gizonak izatea (%87,76), baina ez guztiak, 2017., 2018. eta 2019. urteetan ez bezala.

### ATXILOTUAK SEXUAREN ARABERA (2020, N=49)





Batez besteko adina 28,51 urtekoa da, aurreko urtekoa baino askoz txikiagoa, eta adin-tartea 15 eta 63 urte artekoa da. Adin-tarteen banaketari dagokionez, hurrengo grafikoaren arabera, 18 eta 29 urte bitarteko atxilotuak (%57,14) 2019an baino askoz gehiago dira. Gainerako atxilotuei dagokienez, honako adin-tarte hauetan banatzen dira: 18 urtetik beherakoak (%10,2), 30-39 urtekoak (%6,12), 40-49 urtekoak (%12,24), 50-59 urtekoak (%12,24) eta 60-69 urtekoak (%2,04).




Segidan, atxiloteta gehien zein kategoriatan izan diren aztertuz gero, ikusten da aurten atxilotetak modu homogeneoagoan banatu direla eraso gehien jasan dituzten xede-kolektiboen artean. Harrigarria da, hala ere, atxiloteta gehienak sexu-orientazio eta -identitatearen esparruan gertatu izana (%42,86), nahiz eta erregistratutako gorroto-delituen % 20,66 baino ez izan. Gauza bera esan daiteke ideologia eta orientazio politikoa oinarri hartuta atxilotutako pertsonen herena dira (%32.65), nahiz eta erregistratutako gorroto-delituen %10 baino ez izan.

Ondoren, arrazakeriaren eta xenofobiaren esparruan gertatutako atxilotetak daude (%22,45). Hala, kolektibo hori biktimizatuena bada ere (kasuen %50 biltzen ditu), esparru horretan gertatzen diren atxilotetak bosten bat baino ez dira (lesioen %57,75 eta mehatxuen %56,6 jasaten dituen arren). Ere horretan hain atxiloteta gutxi zergatik gertatu diren azaltzeko ahaleginean, esan daiteke, gorroto-delitu mota horiek beste delitu batzuekin alderatuta gehien salatzen direnak izan arren (biktimaren sexu-orientazioan eta -identitatean oinarrituta egingakoekin konparatuz, adibidez<sup>23</sup>), ez direla indarkeriazkoenak edo larrienak izaten<sup>24</sup>. Hala, delituaren larritasun txikiagoagatik, baliteke erasotzailea ez atxilotzea, baizik eta egoztea.

<sup>23</sup> DUNBAR, E., "Race, gender, and sexual orientation in hate crime victimization: Identity politics or identity risk?", *Violence and Victims*, Vol. 21, núm. 3, 2006, 32 eta ss orr.


<sup>24</sup> CRÈVECOEUR-MACPHAIL, D. A., "Sociodemographic profiles of hate crime offenders", en DUNBAR, E./AMALIO BLANCO, A./CRÈVECOEUR-MACPHAIL, D. A. (Eds.), *The psychology of hate crimes as domestic terrorism: U.S. and global issues. Volume 2: Assessment issues with victims and offenders*, Praeger, Santa Barbara, CA, 2017, *passim*.

### ATXILOTUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2020, N=49)




Azkenik, atxilotuen delitu-tipologiaren araberako banaketari dagokionez, hurrengo grafikoan desordena publikoak (% 32,65) eta lesioak (% 16,33) nabarmentzen dira pertsona gehien atxilotu dituzten tipologiak bezala. Bereziki deigarria da desordena publikoen kasua, kontuan hartuta mota horretako gertakari bakarra 16 atxilotu-rekin kitatu dela. Aldi berean, nabarmentzekoa da lesioengatik 8 atxiloteta baino ez egotea, nahiz eta delitu-tipologia nagusia izan.

### ATXILOTUAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2020, N=49)




## 1.4. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA<sup>25</sup>

Biktimen %56,36 espainiarrak dira (346tik 195), eta horietatik gehienak, ia %76,92, Euskaditik datoz (150 kasu). Bestalde, atzerriko biktimak gainerako erdia baino gutxiago dira (%43,64 inguru, 151 kasu). Azken horiei dagokienez, Latinoamerikatik eta Afrikatik etorritako biktimak dira ugarienak (biktima guztien %16,47 eta %20,23, hurrenez hurren). Afrikatik etorritako biktimei dagokienez, aurreko urtean bezala, azpimarratzekoa da marokoar jatorriko pertsonen presentzia handia, gorroto-delituaren biktimen %11,27 baitira.




<sup>25</sup> Kasu honetan, ikertuen eta atxilotuen kasuan gertatzen zen bezala, biktimizazioen kopurua ez dator bat gorroto delituaren benetako kopuruarekin, hainbat arrazoi direla medio. Alde batetik, 3 kasutan ezin izan zen biktima zehatza identifikatu. Bestetik, gertakarietako batzuek biktima zuzen bat baino gehiago izan zuten.

Ondoren, biktimen banaketa aztertzen da jatorrizko lurralde historikoaren arabera, Espainiako Estatuaren barruan. Datuek erakusten dute Bizkaiak biltzen dituela berriz ere biktimizazio gehienak (%43,08). Gainerakoak, aldiz, Gipuzkoan (% 25,13), Araban (%8,72) eta Estatuko gainerako lurraldeetan (%23,06) banatzen dira.




Datuak udalerrri-mailan banakatzen badira, bostgarren urtez jarraian Bilbo eta Barakaldo nabarmentzen direla ikus daiteke (31 kasu bakoitza), 2019an baino askoz gehiago. Bereziki Barakaldoren kasuan, deigarria da herri horretatik etorritako biktimen kopurua laukoiztu izana. Hala ere, litekeena da egotzi eta atxilotutako pertsona gehienak herri horretakoak izanarekin, bai eta istiluen zati handi bat bertan gertatu izanarekin harremana izatea. Bestalde, aurreko urtean bezala, aurten ere nabarmen gailentzen dira lurralde historikoetako gainerako hiriburuak (Donostia,  $n=18$ ; eta Gasteiz,  $n=12$ ).

### BIKTIMAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2020, N=150)




Jarraian, biktimen sexuari erreparatzen badiogu, ikusten dugu biktima gehienak gizonak direla ( $n=203$ ), nahiz eta emakumeek aurreko urtean baino ehuneko dezente handiagoa lortu duten ( $n=143$ ).


### BIKTIMAK SEXUAREN ARABERA (2020, N=346)




Biktimen ezaugarri demografikoei arreta jarriz gero, batez besteko adina 28 urtekoa da, batez besteko txikiena txosten guztiei dagokienez. Zehazki, biktima gehienak honako adin-tarte hauetan daude: 18-29 urte (%24,28), 30-39 urte (%22,54) eta 40-49 urte (%25,72). Gainerako adin-tarteei dagokienez, 50 eta 59 urte bitarteko adin-tartea kasuen% 10,4 da, eta adingabeak, berriz, pixka bat igo dira,% 12,72. Azkenik, zahartzaroaren kategoriak (>60) gainerako %4,34 batzen du. Adin-tartea 2 eta 87 urte bitartekoa da.



Hala ere, datu horiek sexuaren arabera banakatzen badira, ikus daiteke, ikertuen kasuan gertatzen zen bezala, gizonak direla nagusi maila baxuenetan, batez ere 18-29 urteko tartean, horietan hirukoiztu egiten baita emakumeen kopurua. Adin-tarte horretatik aurrera, ordea, gizonen eta emakumeen ehunekoa berdintzen doa, emakumeek gizonak gainditzera iritsiz 40 eta 49 urte bitarteko adin-tartean.




Bestalde, hurrengo grafikoak adierazten duen moduan, biktimizazioen erdiak baino gehiago arrazakeriaren esparruan gertatu dira ( $n=182$ , % 52,6)<sup>26</sup>, ondoren biktimaren sexu-orientazioaren eta -identitatearen ondorioz sortutako biktimizazioak ( $n=61$ , %17,63) doazelarik. Hau logikoa da kontuan hartzen badugu azken urtean gorroto-delitu gehien jasan dituzten kolektiboak direla. Hirugarrenik, laugarrenik eta bosgarrenik, biktimaren dibertsitate funtzionalagatik ( $n=40$ , % 11,56), ideologia eta orientazio-politikoagatik ( $n=39$ , % 11,27) eta sexua-gatik ( $n=19$ , %5,49) egindako biktimizazioak ditugu.



Bukatzeko, biktimak delitu-tipologiaren arabera banatuz gero, hurrengo grafikoak erakusten du mehatxuak eta lesioak jasan dituzten biktimak erdiak baino gehiago direla (% 51,45). Hirugarrenik eta laugarrenik, hertsapenak eta tratu iraingarria daude (% 12,45 bakoitza).

<sup>26</sup> Ildo horretan, nabarmentzekoa da arraza/etnia oinarri hartuta biktimizatutako pertsonen %60,34 atzerritarak izatea, gainerako %39,66k Espainiako nazionalitatea duten bitartean.

### BIKTIMAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2020, N=346)



## 1.5. ONDORIOAK

### 1.5.1. Gorrito gertakarien guztizko kopurua

2020an 241 gorrito-delitu erregistratu dira Euskadin. Hasieran aipatu bezala, arau-hauste administratiboen erregistroa alde batera utzi da, bi eremuri eragiten baitzieten (kirol-ikuskizunak eta ostalaritzari eta gaueko aisialdiari lotutako onarpen-eskubidea), eta eremu horiek herritarren erabilera eta gozamina mugatu dute, SARS-Cov-2k eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko ezarritako murrizketen ondorioz.

Kontuan hartzen badugu 2016an 124 delitu-intzidente erregistratu zirela, 2017an 129 erregistratu zirela, 2018an 130 identifikatu zirela eta 2019an 105 jaso zirela, gertakariei dagokienez gorakada nabarmena hauteman da, aurreko urtean beherakada txiki bat izan ondoren. Aurtengo ohiz kanpoko igoera gertatu da gorabehera mota horiek erregistratzeko eta sailkatzeko sistema aldatu eta hobetu delako, bai ikasketa-mailan, bai estatistika-informazioaren xurgapen zentrolean.



## 1.5.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboen mapa

Gertakari arrazista edo xenofoboek erregistratutako delituen %48,55 biltzen dute (117 kasu), eta igoera nabarmena izan dute aurreko urtearekin alderatuta (+61 intzidente: %108,93). Sexu-orientazio eta -identitatearen esparruan delituen %20,75 erregistratu dira (50 kasu); dibertsitate funtzionalarekin lotutako delituen artean, berriz, delituen %12,03 daude (29 kasu), aurreko urtean baino kopuru nabarmen handiagoak (+37, %284,62 sexu-orientazio eta -identitatearen kasuan eta +23, %383,33). Laugarrenik, ideologia eta orientazio politikoan oinarritutako gorroto-delituak daude: %9,96 (24 kasu), eta, ondoren, biktimaren sexua dela-eta egindako gorroto-delituak (%6,64). Kolektibo horien biktimizazioak ere gora egin du, nabarmenagoa izanik sexuaren kasuan (+13, %433,33 eta +6, %33,33, ideologiaren kasuan). Bestalde, aporofobiaren (2 kasu), erlijio-sinesmen eta -praktiken (1 kasu), antisemitismoaren (1 kasu) eta adinaren (1 kasu) eremuek erregistratutako delituen %2,06 osatzen dute. Delitu horiek, antisemitismoa eta adina izan ezik (gogora dezagun 2019an ez zirela kategoria autonomoak), beherakada nabarmena izan dute, nabarmenagoa erlijio-sinesmen eta -praktiken kasuan, aurreko urtearekin alderatuta.

Xede-kolektibo bakoitzaren hazkunde kuantitatiboek, ordea, ez dute nabarmen aldatu kolektiboen mapa, bakoitzak gainerakoen aldean duen pisu erlatiboaren ikuspegitik. Hala, kolektibo etnikoak (arrazakeria, xenofobia, ideologia, orientazio politiko, sinesmen eta praktika erlijiosoak eta antisemitismoa) era zabalean ulertua %58,92 ordezkatzeko du, hau da, gorroto-maparen hiru bosten, 2019koa baino zertxobait txikiagoa. Ikusi ahal izan den bezala, aurrekoa ez da kolektibo horien biktimizazioak behera egin izanaren ondorio, erlijio-sinesmenak eta -praktikak izan ezik. Aitzitik, kolektibo sexuala era zabalean ere kontuan hartuta (sexu-orientazio eta -identitateagatik eta genero-identitateagatik egindako delituak barne hartuta)<sup>27</sup>, kasuen %27,39 izatera igaro da, bai eta biktimaren dibertsitate funtzionalagatik egindako gorroto-delituen gorakada nabarmena ere, orain erregistratutako delituen %12 baitira.

## 1.5.3. Delitu-tipologiak

### a). Talde nagusiak.

Laugarren txosten honetan lesioak (71 kasu: %29,46), mehatxuak (53 kasu: %22) delitu gertakarien bi talde kopurutsuenak bezala mantendu egin dira, hurrengo delitu-taldeengandik nahiko urrun. Biek batera delitu-gertakarien % 51,46 hartzen dute, hots, gorroto-maparen erdia baino gehiago. Bestalde, ikus daiteke gorrotoa diskurtsoak (14 kasu: %5,8) beherakada nabarmena izan duela, batez ere erregistratutako delitu-tipologia guztiekiko ehunekoari dagokionez.

### b). Indarkeriazko gertakariak.

Lesioak, talde osoaren herenera hurbiltzen direnak (71 kasu: %29,46), aurreko txostenetan aipatutako moduan, erantzukizun kriminala aldatzen duen Zigor Kodearen 22.4 artikuluko inguruabarrarengatik astunduak izango lirakeen jokaeren erreferentziarako muina izango lirakeke. Aurten, indarkeriazko gertakarien erregistroa bildutako kotarik handiena izan da, eta orain arteko zifra handiena (2018koa) bikoiztu egiten du.

Era zabalean ulertuta, "ekintzen bidezko" delituen burutze dinamikaren antzekoak diren beste delitu batzuekin batera, (gizahilketa  $n=1$ ; sexu-erasoa  $n=2$ ; jarkitze eta atentatu delituak:  $n=4$ ; kalteak  $n=11$ ; eta ebasketa  $n=2$  gehitu ondoren) delitu itxura duten gertakarien ia %40 ( $n=92$ ; %37,76) osatzen dute.

<sup>27</sup> CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2017", *Eusko Jaurlaritzako Gobierno Vasco*, 2018, 26 eta ss orr.

**c). "Hitzen bidezko" gorroto delituak** («*hate speech*» zentzu zabalean).

Zentzu hertsian hartutako gorroto delituen kategoriarekin konparatuz (ekintzen bidezkoak), gorrotoaren propaganda gertakariak gehiengoa izaten jarraitzen dute. Mehatxuak (53), gorroto-diskurtsoa zentzu hertsian (20), irainak (8), kalumniak (3) gehituz gero, %32,36 osatzen dute (78), %67,6ra (71) igoz kategoria orokor baino gertukoak gehitzen badizkiogu, adibidez, derrigortzeak (30) eta tratu apalesgarriak (30). Edonola ere, adierazi behar da gertakari horien gehiengoa ez dela aurreko urteetan bezain sendoa, 2017an lortutako ehunekoaren antzekoa lortuz.

**Aurreko urteaz geroztik jakinarazi den bezala tratu apalesgarrien kasuen multzoa xehetasunez aztertuz gero, jokabide mehatxagarri, iraingarrien eta umiliagarri/mespretxuzkoen testuinguruan ematen diren gorroto-gertakariak tokian bertako tipifikazioari buruzko zalantzak islatzen egon daitekeela ondorioztatu daiteke.**

Delituen mapa horrela geratzen da, aurreko txostenaren ildo berean, adierazpen jokaeren "gain-irudikapen" zertxobait lausoago batekin, 6 4ren kontra, lesio portaera edo haien indarkeria periferikoa baino potentzialki larriagoa den indarkeriekin konparatuz.

#### 1.5.4. Denbora- eta espazio-banaketa, eskualde mailako banaketa, egotziak, atxilotuak eta biktimak

Bostgarren urtez jarraian, Bizkaian daude gorroto-delitu gehienak (%53,11), batez ere Bilbon (%17,84) eta Barakaldon (%7,88). Alde horretatik, nabarmentzekoak dira, halaber, lurralde historikoko gainerako hiriburuak, Gasteiz (%13,28) eta Donostia (%6,22), eta Irun (%4,15). Agertokiari dagokionez, bide publikoak (%35,68) gorroto-delitu gehien burutzen diren tokia dira, eta, ondoren, etxebizitzak jarraitzen diolarik (%21,16).

Denbora-banaketari dagokionez, gertakari gehienak asteazkenetan (%17), astelehenetan (%16,6) eta igandee-tan (%16,18) gertatzen dira, eta arratsalde-gauean kontzentratzen dira (%61).

Egotziei erreparatuz, gehienak, 101, espainiarrak dira (%63,52), zeinetatik %85 Euskaditik datozen, batez ere Bizkaitik (%43,69). Atzerritarren diren egotzietatik, Afrikatik (%58,62) eta Latinoamerikatik datozenak (%22,41) nabarmentzen dira. Udallerri-mailan, egotzi gehienak Bizkaiko udallerri nagusienetatik datoz, Bilbo ( $n=17$ ) eta Barakaldo ( $n=24$ ); nahiz eta aurten gainerako lurralde historikoen hiriburuetatik datozen egotzien kopurua ere nabarmena den Donostia-San Sebastián ( $n=15$ ) eta Vitoria-Gasteiz-en ( $n=22$ ).

Bestalde, 2020an 49 atxilotu izan ziren, aurreko urtean baino 6 aldiz gehiago. Gehienak espainiarrak ziren, eta gehienak Euskaditik zetozen (%63,3, 14 Bizkaikoak, 16 Gipuzkoakoak eta 1 Arabakoa).

Biktimen %56,35 espainiarrak dira, %76,92 Euskadikoak. Atzerriko jatorriko biktimei dagokienez (%43,24), Latinoamerikakoak (%16,47) eta Afrikakoak (%20,23) nabarmentzen dira. Euskaditik datozen biktima gehienak Bizkaikoak dira, batez ere Bilbokoak (%20,7) eta Barakaldokoak (%20,7).

### 1.5.5. Euskadiko gorroto mapa Estatu mailako testuinguruan

#### a). Datu orokorrak eta helburu diren kolektiboak.

2020. Urtean zehar 241 gorroto delitu erregistratu ziren Euskadin. Estatu osoko datuei erreferentzia eginez, Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2019ko Txostena<sup>28</sup> abiapuntutzat hartuta Estatu osoko polizia-instantzietara iritsi ziren gorroto delitu guztien %6 Euskadin burutuak izan ziren (103 gertakari, 2018an baino %14,9 gehiago). Ildo honetatik, datu hauek testuinguruan kokatzeko. 2019. Urtearen bukaeran, Euskadik 2.207.776 biztanle zituen — Bizkaia (1,15M biztanle, Gipuzkoa (0,72M biztanle) y Araba (0,33M biztanle) — Espainiako 47.026.208 (INE, 2021) biztanletatik.

Ondorioz, Euskadin erregistratutako datuek ez dute agerian uzten fenomenoaren detekzioari dagokionez gorakada esanguratsurik izan denik, alderantziz baizik; hau Barne Ministerioak azken urteotan bildutako estatuko datuetan ikus daitekeen bitartean (2013-2018).

Bestalde, azpimarratu behar da Barne Ministerioaren txostenak Estatuan burututako arau-hauste administratiiboak ere jasotzen dituen lehen urtea dela: 2018an 122 izan ziren, eta 2019an 108.

Espainiaren kasuan, 2019an, kategoria nagusietan, ideologian eta arrazismo/xenofobian, oinarrituta buruturiko delituen ehunekoan eman den hazkundera nabarmentzen da, zeinak erregistratutako 1.706 gertakarien ia 2/3ak biltzen dituen, Euskadin joera hau ikusten ez den bitartean. Kolektiboek dagokionez, harrigarria da kolektiborik kaltetuena bi kasuetan bat ez egitea: Euskadin arrazismoa eta xenofobia dira nagusi, gertakarien %48,55 biltzen dutelarik, eta, ondoren doa sexu-orientazio eta identitatea, delituen %20,75 biltzen duena; Espainian, berriz, ideologiak arrazismoa eta xenofobia gainditzen ditu, delituen %34,9 biltzen baitu, kolektibo horrek gertutik jarraitzen badu ere, gertakarien %30,2 biltzen duelarik. Estatu mailan, sexu-orientazio edo identitatearen aurkako delituak lasuen %16,3 dira Euskadin ideologia %10 baino ez den bitartean, dibersitate funtzionaleko delituen-gandik gainditua izanik (%12, %1,5 Espainian).

Aurreko urtearekin erkatuz, Estatu mailako Barne Ministerioaren txostenean kategoria guztiek gorako gutxi gorabeherako joera izan dute aurreko urtearekin konparatuz, antisemitismoa, aporofobia, sinesmenak eta praktika erlijiosoak eta belaunaldi arteko diskriminazioa izan ezik, zeinak jaitsi egin diren, bai eta sexu/genero diskriminazioa, egonkor mantentzen dena. Euskadi mailan, ordea, hazkunde handiena izan duten kategoriak sexua (3 gertakarietatik 16 gertakaritara igaroz), dibersitate funtzionala (6 gertakaritik 29 gertakaritara igaroz), sexu-orientazio eta identitatea (23 gertakaritik 50 gertakaritara igaroz) eta arrazismoa-xenofobia (56 gertakaritik 117 gertakaritara igaroz). Bestalde, ideologia eta politika-orientazioaren kategoriak hazkunde nabarmena izan du (%33,33), baina ez beste kolektiboek bezainbeste, sinesmen eta praktika erlijiosoak eta aporofobiak nabarmen behera egin duten bitartean (-%85,7 y -%33,33 hurrenez hurren).

Ondorioz, esan daiteke bi txostenetan biktimizatuenak izan ziren kolektiboak arrazismoa/xenofobia, ideologia eta sexu-orientazio eta identitatea direla (baita dibersitate funtzionala ere Euskadin), nahiz eta oso kopuru desberdinekin; aldiz, biktimizazio eskasa erregistratu da aporofobia, adina/belaunaldi arteko diskriminazioa eta antisemitismoarekin lotuta.

<sup>28</sup> MINISTERIO DEL INTERIOR, "Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España 2019", *Ministerio del Interior - Gobierno de España*, 2020, 54 orr. Online sarbidea: <http://www.interior.gob.es/documents/642012/3479677/informe+evolucion+2019/631ce020-f9d0-4feb-901c-c3ee0a777896>.

**b). Delitu-tipologiak.**

Delitu-tipologiei dagokienez, bi txostenetan, antzeko ehunekoekin, lesioak (%18,8 Espainian eta %29,75 Euskadin) eta mehatxuak (%20,5 Espainian eta %21,9 Euskadin) gailentzen diren tipologiak dira. Estatu mailan, neurri txikiagoan bada ere, kalteak (%10,3), diskriminazioa (%5,5) eta Konstituzioaren aurkako delituak (%5,3) eta gailentzen dira, Euskadi mailan gorroto-diskurtsoa (%12,4) eta tratu apalesgarria (%12) gailentzen diren bitartean.

**c). Beste batzuk: biktimak, erasotzaileak, banaketa espazio-tenporala eta agertokia.**

Biktimaren profil demografikoari erreparatuz, bi txostenetan gehienak gizonak izan ziren (%64,2 Espainian eta %58,7 Euskadin), 18 eta 50 urte artekoak (kasuen bi herenak baino gehiago). Jatorrizko lekuari erreferentzia eginez, harrigarria da Espainia mailan biktimen %72,3 espainiarrak izatea, Euskadi mailan kopuru hau %56,4era modu nabarian murrizten den bitartean, zeinetatik %77 Euskaditik zetozen. Bestalde, atzeritarrak diren biktimei dagokienez, bi kasuetan biktimizazio gehien jasan duten kolektiboak Afrikatik datozen pertsonak (%12,2 Espainian eta %20,23 Euskadin) eta Amerikatik datozen pertsonak (%9,6 Espainian eta %16,47 Euskadin) izan ziren.

Erasotzaileen profil demografikoa aztertuz gero, bai Espainia mailan bai Euskadi mailan, gorroto gertakarien erasotzaileak batez ere gizonak (%83 Espainian eta %76,5 Euskadi), gazte helduak (Espainian %68,81a eta Euskadin %60,58a 40 urtetik beherakoak ziren) eta espainiar nazionalitatekoak (%84,7 Espainian eta %66,5 Euskadin) izan ziren.

Gertakari hauen banaketa espazio-tenporalari erreparatuz, Barne Ministerioaren Txostenak islatzen du urrian eta apirilaren burutu zirela mota honetako gertakari gehienak, 199 y 173 gertakariekin, hurrenez-hurren. Euskadin, ordea, iraila eta abendua izan ziren gertakari gehien erregistratu zituzten hilabeteak, lehena 29 gertakariekin, eta bigarrena 19 gertakariekin.

Bestalde, bai Espainian bai Euskadin, gertakari gehienak bide publikoan kokatzen dira (%37,33 Espainian eta %35,68 Euskadin). Eremu pribatuan, berriz, neurri txikiagoan bada ere, etxebizitzak nabarmentzen dira (%18,58 Espainian eta %21,16 Euskadin) gertakari horien agertoki moduan. Nabarmentzekoa da Espainian Internet ez izatea agertokia kopuru handiago batean; Euskadin, berriz, laugarren komisio-leku erabiliena izanik, intzidenteen %4,47 biltzen baititu.

Azken gogoeta bat. Estatua v. Euskadiren arteko urtero egin izan den konparaketa Barne Ministerioaren txosteneko erabilgarri zituen datuekin egin izan da. Txosten hori aurreko urtekoa denez, jauzi "estrukturala" eragiten du beti, urte desberdinak direlako. Aurten gerta litekeen distortsio hori are nabarmenagoa edo nabarmenagoa izango da pandemiarik eta pandemiarik gabeko aldiak alderatzen badira. Gainera, aurten, Euskadin, eraginkortasun handiagoko erregistro-metodologia aldatu da, termino kualitatiboetan. Hala eta guztiz ere, uste dugu emandako informazioa oraindik ere baliagarria dela, urtez urte mantentzen den heinean.



## **2. DATU OFIZIAL EGUNERATUEN ESPARRU KONPARATUA**

## 2. DATU OFIZIAL EGUNERATUEN ESPARRU KONPARATUA

Nazioarteko joeren eta joera konparatuen azterketak<sup>29</sup> aukera ematen du gaiaren egoera eta etxeko ahaleginen balizko aurrerapena testuinguruan jartzeko eta modu egokiagoan neurtzeko. Jarraian, beraz, eskura dauden datu guztiak biltzen dira, gure kultura juridikoaren arloko herrialde garrantzitsu batzuek polizia-erregistroaren jarduera ez ezik haren trazabilitatea identifikatzeko egindako ahaleginak erakusteko. Aurreratu daiteke trazabilitate osoko agertoki ideal bat oraindik ezin dela eskaini aztertzen ari diren herrialdeetako bati dagokionez. Baina, aldi berean, agerikoa da norabide horretan egindako bide bat dutela, deskribatzea komeni dena, etorkizuneko eredu markatzen baitu.

### 1. ERRESUMA BATUA

Txosten horretan Ingalaterra eta Galesi buruzko datu guztiak ez ezik, Eskozia eta Ipar Irlandari buruzkoak ere jasoko dira Erresuma Batuan. Ohartarazi behar da pandemiaren zailtasun erantsia eta informazio-iturrien aniztasuna direla eta, tartekako esposizioa egin behar dela, eta horren helburua ez dela datu-bilketa bat egitea, baizik eta nolabaiteko zorrotasuna, informazio-iturri bakoitzaren irismen zehatzaren ezagutza ahalbideratzeko. Interpretazioa errazteko, hala ere, herrialde honen eta hurrengo azken laburpena egingo da 2. atal honen amaieran. Laburpen horrek, nolahi ere, estatistika-taldea bideratzen du, ahal den neurrian, justizia-administrazioko instantzien (polizia, fiskaltza, epailetza) trazabilitatea erakustera.

#### 1.1. Errealitate empirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera

Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundeak (OSCE/ODIHR) Erresuma Batuko gorroto-delituei buruz darrabilen estatistika-informazio berriena 2019koa da<sup>30</sup>, herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari berari emandako datuen iraultetaren arabera. Guztira, 106.672 gorroto-delitu erregistratu dituzte polizia-erakundeek. 106.672 gorroto-delituetatik 105.090 Ingalaterra eta Galesekoak dira (% 98,52) eta 1.582 Ipar Irlandakoak (% 1,48), Eskozia alde batera utzita. Adierazten den bezala, poliziak jasotako gorroto-delituen erdiak baino gehiago ordena publikoko delituak dira (public order offences). Hala ere, aurreko ñabardura hori alde batera utzita, delitu-kategoria zehatzak ez daude zehaztuta, eta, beraz, ez da horri buruzko daturik ematen<sup>31</sup>.

Egilearen motibazioei dagokienez, Ingalaterra eta Galesi buruzko datu bereziak daude. Zehazki, 109.401 motibazio daude 105.090 gorroto-delituetan nahastuta. Jarraian datorren sailkapenak poliziak erregistratutako gorroto-delituetan (arrazakeria eta xenofobia) dauden epaitu aurreko motibazioen kopurua antolatzen du, in-

<sup>29</sup> Ikus, LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, "Delitos de odio y estándares internacionales: una visión crítica a contra corriente", *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología (en línea) RECPC 2020 núm. 22-19*, passim. (on line erabilgarri <http://criminnet.ugr.es/recpc/22/recpc22-19.pdf>).

<sup>30</sup> On line bidezko sarbidea: <https://hatecrime.osce.org/united-kingdom>. Hemendik aurrera bakarrik datuak eguneratzen saiatuko bagara ere, garrantzizkoak izan daitezkeen beste ohar batzuetarako hona jo: GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, "Euskadiko gorroto-gertakari buruzko 2018ko txostena", Eusko Jaurjaritza, 2019, 55-56 eta 66-62 orr.

<sup>31</sup> Gainera, datuak emanez gero, lehen aipatutako ordena publikoko delitu batzuk ere ez zituen islatuko OSCEk; izan ere, adierazitakoaren arabera, erakunde horrek gorroto-delitutzat hartu behar denari buruz ematen duen definiziotik kanpo geratzen dira.

tzidentzia handienetik txikienera: Arrazakeria eta xenofobia<sup>32</sup> (76.070), sexu-orientazioa edo genero-identitatea<sup>33</sup> (18.375), desgaitasuna (8.469), musulmanen aurkako aurreiritzia (3.089), beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritzia<sup>34</sup> (1.662), antisemitismoa (1.205) eta kristauen aurkako aurreiritzia (531).

Poliziak erregistratutako gorroto-delituak alde batera utzita eta judizializazio-fasean sartuta, OSCE/ODIHR erakundeak 14.058 gorroto-delitu prozesatu ditu; horietatik 8.446 Ingalaterra eta Galesi buruzkoak dira (% 60,08), eta gainerako 5.612ak Eskoziari buruzkoak (% 39,92). Puntu honetan, polizia-erakundeek erregistratutako gorroto-delituekin gertatzen ez zen bezala, Ipar Irlandari buruzko aipamen oro alde batera uzten da. Zigorra zehazteko fasean, 9.340 kondena daude Ingalaterra eta Galesen gorroto-delituengatik. Fase honetan, ez dago Eskoziari eta Ipar Irlandari buruzko daturik.

Jarraian, Erresuma Batuko lege-sistema bakoitzari erreparatuko diogu, gorroto-istiluen trazabilitatea bilatuz. Txosten hau idazterakoan ditugun datuek baldintzatuko dute hori, eta alde zurretik jakingo dugu Covid-19ren pandemiak zaildu egin duela – zuzenean ez bada, eragotzi ere – Dagozkion datuak argitaratzeko ezarritako denborak errespetatzea<sup>35</sup>.

## 1.2. Beste datu batzuk eguneratzea: Eskozia

Oraingoz, ez dago jasota eskoziar poliziaren gorroto istiluen erregistroari buruzko daturik. Beraz, ezagutzen diren datuak Eskoziako Gobernuak 2019ko otsailan argitaratutako azken txostenekoak dira, non adierazten den poliziak 6.736 gorroto-istilu erregistratu zituela 2017/18an<sup>36</sup>.

Dena den, Eskoziako Gobernuak jakinarazi duenez, Eskoziako Poliziarekin batera eta modu koordinatuan lan egiteko konpromisoa indarrean dago oraindik, eta erritmo onean doa aurrera, 2018/19ko gorroto-istiluen polizia-erregistroei buruzko funtsezko informazioa eta datuak laster banakatu ahal izateko<sup>37</sup>.

Dena den, 2021eko urtarrilean, *eta Freedom of Information (Scotland) Act 2002* arauaren arabera herritar orori laguntza ematen dion Eskoziako agintari publikoei informazioa eskatzeko eskubidearen ondorioz, Poliziak 2019ko martxoaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitartean izandako 7.370 gorroto-istiluren kopurua argitaratu du<sup>38</sup>.

<sup>32</sup> Kategoria honetan arraza, kolore, nazionalitate edo jatorri etniko edo nazionalaren arabera definitzen den edozein talde sar daiteke, Erresuma Batua osatzen duten herrialdeak eta irlandar edo ijito nomadak barne. Asilo-eskatzailak edo errefuxiatuak izateagatik hautatutako pertsonak ere sartzen dira.

<sup>33</sup> Kopuru horretatik, 15.835 gorroto-delitu sexu-orientazioan oinarritutako aurreiritziek eragin zituzten, eta 2.540, berriz, aurreiritzi transfobikoek

<sup>34</sup> Kategoria honetan sartzen dira erlijio bati baino gehiagori eraso zaien delituak. Kategoria horretan, besteak beste, 432 delitu daude, beste erlijio batzuen aurkako gorrotoak eragindakoak; 70 delitu, fedegabeak ez diren aurkako gorrotoak eragindakoak; eta 823 delitu, erlijioaren aurkako gorrotoak eragindakoak, zein erlijiotara zuzentzen diren zehaztu gabe.

<sup>35</sup> Jarraian landuko diren hiru lege-sistemen laburpen labur baina oso baterako, 2020ko abenduaren 10ekoa, ikus ALLEN, G./ZAYED, Y./LEES, R., "Hate crime statistics (Briefing Paper Num. 8537, 20 December 2020)", *House of Commons*, 2020.

<sup>36</sup> Azterketa zehatzago baterako ikus CATEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2019", *Eusko Jaurjaritza-Gobierno Vasco*, 2020, pp. 60-62. Ikus baita ere SCOTTISH GOVERNMENT, "Developing information on hate crime recorded by the police in Scotland", *Scottish Government*, 2019.

<sup>37</sup> Gobernuak zehaztu duenez, aurreikuspenen arabera, 2020ko ekainean beste txosten bat argitaratuko zen ekitaldia ixteko, baina martxoan prozesu hori gelditu egin zen, landa-lana ezin baitzen bateratu Covid-19ren pandemiaren ondorioz sortutako konfinamenduarekin. Uneko proiektua egoerak ahalbidetzen duenean amaituko da. Ikus: SCOTTISH GOVERNMENT, "Response to the request under the Freedom of Information (Scotland) Act 2002 (FOI reference: 202000052883)", 2020; SCOTTISH GOVERNMENT, "Response to the request under the Freedom of Information (Scotland) Act 2002 (FOI reference: 202000043165)", 2020.

<sup>38</sup> SCOTTISH GOVERNMENT, "Response to the request under the Freedom of Information (Scotland) Act 2002 (FOI reference: IM-FOI-2020-2320)", 2021.

Poliziak 2019-20 aldian 246.516 delitu edo “Crimes” erregistratu zituen guztira (2018/19 urtearekiko %1etik behe-rako igoera), eta delitu edo offence kopurua 250.662 izan zen (2018/19 urtearekiko %1eko igoera)<sup>39</sup>.

Arrazagatik larritutako jazarpenari dagokionez (*racially aggravated harassment*), “Offences” kategorian sartuta dagoena, 2019/20an 92 polizia-erregistro egin ziren, 2018/19an 108 izan ziren bitartean. Arrazagatik astundutako jokabideari dagokionez (*racially aggravated conduct*), “Offences” kategorian ere 1.645 dira polizia-erregistroak, 2018/19an 1.636 izan ziren bitartean. Guztira, 1.737 polizia-erregistro, arrazagatik delituengatik (*racially aggravated offences*)<sup>40</sup>. Gainerako delituei dagokienez (adibidez, eraso-delitua, ordena publikoaren nahasmendua, etab.), ez da posible datu horiek ezagutzea, ez baitago berriaz jasota larritasun espezifikorik duten ala ez. Orainsuago, erregistratutako gorroto-delituen bati lotutako faktore astungarrien (*aggravator*) inguruko datuak eman dira – behin-behinekoak –. Guztira, aztertutako denbora-tartearen arabera, 2019ko martxoaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitartean 5.437 faktore astungarri<sup>41</sup> erregistratu dira<sup>42</sup>. Eta 2019ko abenduaren 1etik 2020ko azaroaren 30era<sup>43</sup> 6.321 faktore astungarri erregistratu dira<sup>44</sup>.

Eskoziako Fiskaltzari (*Crown Office and Procurator Fiscal Service* edo, siglengatik, COPFS)<sup>45</sup>, eskoziar poliziak edo beste agentzia batzuek egindako inputazioen kopurua% 11 igo da aurreko urtearekin alderatuta. 2019/20an 5.219 egozpen izan ziren gorroto-delituengatik<sup>46</sup>, 2018/19an, aldiz, 4.686. Nagusitasun-ordenaren arabera, honako hauek daude: arraza, 3.038 egozpenekin, aurreko urteko 2.921<sup>47</sup> egozpenen aldean (%4ko igoera); sexu-orientazioa, 1.486 egozpenekin, aurreko urteko 1.194 egozpenekin alderatuta (%24ko igoera); erlijioa, 660 egozpenekin, aurreko urteko 534 egozpenekin alderatuta (%24ko gehikuntza); desgaitasuna, 387 egozpenekin, aurreko urteko 299 egozpenekin (%299ko gehikuntza). Proportzioan, esan daiteke arraza egozpenen erdietan baino gehiagotan agertzen dela, %58,21 inguruan; aldiz, orientazio sexuala (%28,47), erlijioa (%12,65), desgaitasuna (%7,41) eta identitate transgeneroa (%0,78) bezalako markatzaileek distantzia handiagoa markatzen dute arlo kuantitatiboan.

<sup>39</sup> Gogoan izan behar da “Crime” txosten mota horietan larritzat jotzen diren zuzenbide penaleko hainbat urraketa bezala erabiltzen direla (adibidez, giza hilketa edo eraso larria), eta “offence”, berriz, larritasun txikiagoko beste batzuk (adibidez, ordena publikoa aldatzea edo jazarpena). Larritasunaren irizpidea ezar litekeen gehieneko kondenarekin lotuta egongo da. Ikus: SCOTTISH GOVERNMENT, “Recorded Crime in Scotland 2019-20”, *Scottish Government*, pp. 9 y 49-50; CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINITZA, “Informe de incidentes de odio de Euskadi 2019”, op. cit., pp. 58-59.

<sup>40</sup> SCOTTISH GOVERNMENT, “Recorded... op. cit., p. 92.

<sup>41</sup> Kategorien arabera banaketa, jasota dagoen bezala, honakoa da: arraza (3.346), sexu-orientazioa (1.085), erlijioa (448), desgaitasuna (225), beste faktore astungarri anitz arraz aedo erlijioa barne (143), transgeneroa (83), arraza eta erlijioa (71) eta beste faktore astungarri anitz arraza eta erlijioa kenduta (36).

<sup>42</sup> SCOTTISH GOVERNMENT, “Response to the request under the Freedom of Information (Scotland) Act 2002 (FOI reference: IM-FOI-2020-2320)”, 2021.

<sup>43</sup> Kategorien arabera banaketa, jasota dagoen bezala, ondokoa da: Arraza (3.936), sexu-orientazioa (1.303), erlijioa (400), desgaitasuna (290), beste faktore astungarri anitz arraza eta erlijioa barnetos (173), transgeneroa (78), arraza eta erlijioa (76) eta beste faktore astungarri anitz arraza eta erlijioa kenduta (65).

<sup>44</sup> SCOTTISH GOVERNMENT, “Response to the request under the Freedom of Information (Scotland) Act 2002 (FOI reference: IM-FOI-2020-2226)”, 2021.

<sup>45</sup> Eskoziako berezitasun gisa, ez da inputatutako pertsonen kopurua edo inputazio horien oinarri diren istiluen kopurua, baizik eta gorroto-delituengatik inputazioen kopurua aditzera emango da. (hate crime charges). Beraz, pertsona bakar batek kargu bat edo gehiago ekarri ahal izango ditu berarekin. Era berean, kontuan hartu behar da egozpen bakoitzak alde aurreko astuntze bat baino gehiago ekar ditzakeela, eta, beraz, datuak kategoriatan babestuaren arabera banakatzeko orduan, egozpen bakarra konputatuko da, tartean dauden kategoriak adina aldiz (adibidez: biktima beltz eta homosexual bat arraza-egozpen gisa eta sexu-orientazioagatik egozpen gisa).

<sup>46</sup> Jarraian garatuko diren datuentzat eta datu honentzat, ikus Para este y otros datos derivados que se desarrollarán a continuación, véase CROWN OFFICE & PROCURATOR FISCAL SERVICE, “Hate crime in Scotland 2019-20”, COPFS, 2020.

<sup>47</sup> Kontuan izan behar da zifrak, 2018/19koak izan arren, aldatu egin daitezkeela – Eta aldatu egiten direla – Aurreko txostenean eskainitakoekin alderatuta, mota horretako txostenak elikatzen dituzten datu-baseak eguneratu egiten baitira.



Arraza-arazoengatik (*racially aggravated harassment and behaviour*<sup>48</sup> astundutako jazarpen- eta portaera-delituak arrazari dagozkion 3.038 egozpenetatik 1.208 hartzen ditu, hau da, aurreko urtearekin (1.204 egozpen 2018/19an) eta arraza-delituengatik (*race crimes*) egozpen guztien %39,76 2019/20an. Arrazaren larritasuna duten gainerako delituengatik egozpenak ere areagotu egin dira, hala nola jokabide mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*) edo eraso-delitua (*assault*), 1.717 inputazio izatetik (2018/19) 1.830 izatera (2019/20) hazi da, hau da, une honetan %60,24.

Azkenik, komeni da ikustea zenbat egozpenek eragiten duten fiskalek jarduketa judizialak hasteko erabakia hartzea (Court proceedings). Kategorien arabera, arrazari buruzko 3.038 inputazioetatik 2.480 (%81,63) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 273 inputaziotan (%8,99) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, baina akusatu beraren aurkako beste inputazio bat egon zen, eta kasu berean, lehen inputazioan jasotako informazioa erabili ahal izan zuen. Nahi izanez gero, termino erlatiboagoetan bada ere, 2.753 egozpenez (%90,62) hitz egin daiteke, eta horiek, nolabait, jarduketa judizialek bideratu dira. Era berean, beste 45 inputaziotan (% 1,48) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia, nola jokatu zehazteko ikerketa- eta/edo balorazio-fasean baitago. Sexu-orientazioari buruzko 1.486 inputazioetatik, 1.249 (%84,05) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 114 inputaziotan (%7,67) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 1.363 inputazio (%91,72) jarduketa judizialek bideratu dira. Era berean, beste 9 inputaziotan (%0,60) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia. Erljioari buruzko 660 inputazioetatik 555 (%84,09) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 60 inputaziotan (%9,09) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 615 inputazio (%93,18) jarduketa judizialek bideratu direla esan daiteke. Era berean, beste 3 inputaziotan (% 0,45) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia. Desgaitasunari buruzko 387 inputazioetatik 339 (%87,60) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 23 inputaziotan (%9,09) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 615 inputazio (%93,18) jarduketa judizialek bideratu direla esan daiteke. Era berean, beste 2 inputaziotan (%0,52) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia. Azkenik, identitate transgeneroari buruzko 41 inputazioetatik 33 (%80,49) judizializatu egin ziren.

2018/19an, 89.733 pertsonaren aurkako karguak aurkeztu ziren Eskozian, eta horrek 78.503 kondena ekarri zituen<sup>49</sup>. Horien guztien artean, 629 kondenak arrazagatiko astundua/adierazlea dute<sup>50</sup>, 356 sexu-orientaziokoa, 204 erlijiokoa, 89 desgaitasunekoa eta 7 transgenerokoa. Desgaitasunagatiko astunduen kasuan, soilik handitu da datu hori, eta % 51 gehiago dira astundutako kondenak 2017/18arekin alderatuz. 505 kondenatan, arrazagatiko astundua /adierazlea hautematen zaion pertsona gizonetzkoa da (% 80,29), eta 124 kondenatutan, berriz, emakumezkoa (%19,71). Sexu-orientazioagatiko astundua/adierazleari dagokionez, 301 gizon (%84,55) eta 55 emakume (% 15,45). Erljioagatiko astundua/adierazleari dagokionez, 189an gizonetzkoa da (% 92,65) eta 15

<sup>48</sup> Horri eta Eskoziako gorroto-delituaren arau-esparruari lotutako gainerako delituei buruz, Espainiako kasuaren arau-baliokideak etengabe aipatuz, ikus CATEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2019", op. cit., pp. 46-50.

<sup>49</sup> Zehaztasunez, jarraian garatuko diren datu hau eta beste batzuentzat, ikus SCOTTISH GOVERNMENT, "Criminal proceedings in Scotland 2018-19", *Justice Analytical Services (Scottish Government)*, 2020.

<sup>50</sup> Kontuan izan behar da jasotzen diren datuek legez jasotako eta egoitza judizialean frogatu eta baloratu diren astuntzeak ez ezik, desgaitasunari, arrazari, erlijioari, sexu-orientazioari edo identitate transgeneroari buruzko beste adierazle batzuk ere jasotzen dituztela, inputazioren baten testuingurua hobeto ulertzen laguntzen dutenak, eta delituaren izaera zehazteko giltzarri izan daitekeen informazioa gehitzen dutela. Criminal History System (CHS) izeneko datu-basean, polizia eta fiskaltzak edozein unetan sar ditzakete adierazle horiek. Beraz, ondorengo datuek astuntze eta identifikatzaileen bolumen homogeneoa adierazten dute. Era berean, nabarmendu behar da delitu batengatik (crime/offence) ezarritako kondena bati astuntze/adierazle bat baino gehiago lotzen bazaio (adibidez, arraza eta erlijioa), bi astuntze/adierazle horiek zenbatuko direla. CATEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2019", op. cit., pp. 66-67.

emakumezkoa (%7,35). Desgaitasunagatiko astundua/adierazleari dagokionez, 67 gizonen artean (%75,28) eta 22 emakumeen artean (%24,72). Transgeneroagatiko astundua /adierazleari dagokionez, 7 gizon dira (%100).

Aurreko astuntze/adierazleren bat jasotzen duen delitu-tipologiaren arabera banaketari dagokionez, kondena gehienak delitu multzo batean daude (*miscellaneous offences*), eta ezin da delitu horietako bakoitzari egotz dakizkikeen kondena zehatzen kopurua baino gehiago zehaztu. Delitu hauek dira: ordena publikoa aldatzea (*breach of the peace*), jokabide mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*), jazarpena (*stalking*), futboleko jokabide iraingarria (*offensive behaviour at football*) eta komunikazio mehatxagarriak (*threatening communications*). Hemen islatutako delitu-multzo hori arrazaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 454 kondena dira (%72,18), sexu-orientazioaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 317 kondena (%89,04), astuntze/erlijio-adierazlea duten kondena guztien 175 kondena (%85,78), desgaitasunaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 73 kondena (%82,02), eta asteratzearen/adierazle den kondena osoaren 7 kondena (%100).

### 1.3. Beste datu batzuen eguneratzea: Ipar Irlanda

Ipar Irlandako Polizia Zerbitzuak (*Police Service of Northern Ireland*, edo siglen arabera, PSNI) argitaratutako azken urteko txostenak, Ipar Irlandako poliziak berak 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era arte erregistratutako gorrotoak eragindako gertakari edo delitu guztiak jasotzen ditu<sup>51</sup>. Datu horiek aurrerago garatuko badira ere, aurreratu behar da 2019/20ean 2.278 gorroto-gertakari zenbatu zirela, eta gertakari horiekin lotuta 1.555 delitu erregistratu zirela guztira<sup>52</sup>.

Motibazio arrazistari dagokionez, 881 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 583 delitu erregistratu ziren, hau da, 194 gertakari eta 112 delitu gutxiago 2018/19 urtearekin alderatuta. Xehetasun gehiagorekin aztertuz, 881 gorroto-gertakari arrazistetatik, poliziak 513 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%58,23), eta 368, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%41,77)<sup>53</sup>. 583 delitu arrazistari dagokienez, poliziak 2019/20an erregistratu zituen delitu guztien %0,6 dira. Horietatik 346 delitu pertsonaren aurkako indarkeria-delituen kategorian sartzen dira (*violence against the person offences*), hau da, %59,35; 228 lapurreta (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteen delituen kategorian (*theft, including burglary & criminal damage*), hau da, %39,11; eta 9 delitu, berriz, gainerako delituen kategorian orokorrean sartzen dira (*all other offences*), hau da, %1,54. Gertakari eta delitu horietatik asko (881 gertakarietatik 381, %43,35, eta 583 delituetatik 250, %42,88) Belfast hirian gertatu ziren. Gorroto delitu arrazistaren biktimaren jatorri etnikoaren arabera (*ethnicity*), 216tan zuria zen (*White*; %38,64), 133tan ez zen etnia edo pertsona ezagutzen (*Ethnicity Missing/Unknown Person*; %23,79), 80tan asiarra (*Asian*; %14,31), 70etan beltza

<sup>51</sup> Aurrerantzean, PSNI, "Incidents and crimes with a hate motivation recorded by the Police in Northern Ireland", *PSNI Statistics Branch*, 2020 - ean jasotako datu estatistikoaren zerrenda emango da. Kontuan izan behar da txosten hau hiru hilean behin egiten dela, eta izaera bereko aurreko txostenak ordeztzen dituela. Era berean, urteko txosten bat ere egiten da – pixka bat zehatzagoa azterketan (adibidez, biktimaren adina eta sexua) –, 2020ko azaroan argitaratu dena, eta azken urte fiskalean (*financial year*) lortutako datuetan oinarritzen dena, hau da, 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra. Azken txosten honi ere aipamen puntualak egingo zaizkio: PSNI, "Trends in hate motivated incidents and crimes recorded by the Police in Northern Ireland 2004/05 to 2019/20", PSNI, 2020. Hori guztia dela eta, aipatzen den lehen txostenean, zeinetatik gorroto-gertakari/delituei buruzko datu eguneratuak aterako diren, hartzen duen denbora-tartea dela eta, Ipar Irlandan 2020ko martxoaren 23tik aurrera aplikatu diren mugikortasun-kontrolko neurriek, hala nola konfinamenduak edo lockdownak, eragin ahal izan dute jasotzen den gorroto-kriminalitatean. Bigarren txostenari aldiz ez diote eragin Covid-19 dela-eta ezarritako neurriek, ez neurri handi batean behintzat.

<sup>52</sup> 2018/19ko aldi berean, 2.417 gorroto-gertakari izan ziren, eta, guztira, gertakari horiekin lotuta 1.628 delitu erregistratu ziren. Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2019ko apirila-2020ko martxo) aldiz, 2.300 gorroto-gertakari izan ziren, eta, guztira, gertakari horiekin lotuta 1.582 delitu erregistratu ziren.

<sup>53</sup> Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2019ko apirila-2020ko martxo), 936 gorroto-gertakari arrazista zenbatu ziren, eta gertakari horiekin lotuta 626 delitu erregistratu ziren. 936 gorroto-gertakari arrazistetatik, 552 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%58,97), eta 384, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%41,02).

(*Black*; %12,52) eta 60tan mistoa edo beste bat zen (*Mixed/Other*; %10,73). Biktimaren nazionalitatearen arabera (jakina denez, ez du zertan beti bat etorri bere jatorri etnikoarekin), Erresuma Batua eta Irlanda (109; %19,50), Polonia (52; %9,30) eta Siria (34; %6,08) nabarmentzen dira.

Motibazio sektarioari dagokionez, 870 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 627 delitu erregistratu ziren; hau da, 9 gertakari eta 10 delitu gutxiago 2018/19 urtearekin alderatuta. Xehetasun gehiagorekin aztertuz, 870 gorroto-gertakari sektarioetatik poliziak 547 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%62,87), eta 323, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%37,13)<sup>54</sup>. 627 delitu sektarioei dagokienez, poliziak 2019/20an erregistratu zituen delitu guztien %0,6 dira. Horietatik 349 pertsonaren aurkako indarkeriazko delituen kategorian sartzen dira, hau da, % 55,66; 260 lapurreta (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteen kategorian, hau da, % 41,47; eta 18 gainerako delituen kategorian sartzen dira, hau da, % 2,87. Gertakari eta delitu horietako asko (870 gertakarietatik 340, % 39,08; eta 627 delituetatik 240, % 38,28) Belfast hirian gertatu ziren.

Motibazio homofoboari dagokionez, 344 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 244 delitu erregistratu ziren; hau da, 79 gertakari eta 63 delitu gutxiago 2018/19 urtearekin alderatuta. Xehetasun gehiagorekin aztertuz, 344 gorroto-gertakari homofoboetatik, poliziak 198 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%57,56) eta 146, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%42,44)<sup>55</sup>. 244 delitu homofoboari dagokienez, poliziak 2019/20an erregistratu zituen delitu guztien %0,2 dira. Horietatik 198 pertsonaren aurkako indarkeriazko delituen kategorian sartzen dira, hau da, %81,15; 43 lapurreta (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteen kategorian, hau da, %17,62; eta 3 gainerako delituen kategorian sartzen dira, hau da, %1,23. Gertakari eta delitu horietako asko (344 gertakarietatik 142; %41,28 eta 244 delituetatik 83; %34,02) Belfast hirian gertatu ziren.

Desgaitasunari, transfobiari eta fede/erlijioari dagokionean, hiruhileko txosten honetan agertzen diren datuak apalagoak dira. Desgaitasunari dagokionez, 84 gorroto-gertakari zenbatu ziren; eta gertakari horiei lotuta 55 delitu erregistratu ziren, hau da, 17 gertakari eta 10 delitu gutxiago 2018/19 urtearekin alderatuta<sup>56</sup>. Transfobiari dagokionez, 68 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiekin lotuta 34 delitu erregistratu ziren; hau da, 18 gertakari eta 10 delitu gehiago 2018/19arekin alderatuta<sup>57</sup>. Fedeari/erlijioari dagokionez, 31 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 12 delitu erregistratu ziren, hau da, 16 gertakari eta 14 delitu gutxiago 2018/19 urtearekin alderatuta<sup>58</sup>.

<sup>54</sup> Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2019ko apirila-2020ko martxoa), 888 gorroto-gertakari sektario zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 640 delitu erregistratu ziren. 888 gorroto-gertakari sektarioetatik, poliziak 570 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%64,19), eta 318 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%35,81).

<sup>55</sup> Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2019ko apirila eta 2020ko martxoa), 272 gorroto-gertakari homofobo zenbatu ziren, eta gertaera horiei lotuta 195 delitu erregistratu ziren. 272 gorroto-gertakari homofoboaren artean, poliziak 161 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%59,19), eta 111 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%40,81).

<sup>56</sup> Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2019ko apirila-2020ko martxoa), 99 gorroto-gertakari zenbatu ziren desgaitasunarengatik, eta gertakari horiekin lotuta 72 delitu erregistratu ziren. Desgaitasunagatiko gorroto-intzidenteen artean, poliziak 63 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%63,64), eta 36 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%36,36).

<sup>57</sup> Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2019ko apirila-2020ko martxoa), 64 gorroto-gertakari zenbatu ziren transfobiagatik, eta gertakari horiekin lotuta 34 delitu erregistratu ziren. Transfobiagatiko gorroto-gertakariaren artean, poliziak 31 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%48,44); 33 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%51,56).

<sup>58</sup> Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2019ko apirila-2020ko martxoa), 41 gorroto-gertakari zenbatu ziren fedeagatik/erlijioagatik, eta gertakari horiei lotuta 15 delitu erregistratu ziren. Fedea/erlijioagatiko 41 gorroto-gertakariaren artean, poliziak 14 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (%34,15), eta 27 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (%65,85).

Ipar Irlandako Fiskaltza Publikoaren Zerbitzuak (*Public Prosecution Service for Northern Ireland* edo, siglen arabera, PPS), berriz, bi datu mota ematen ditu urteko buletinean, ondo bereziak. Alde batetik, PPSek PSNItik jasotzen dituen kasuen bolumen osoarekin lotutako datu estatistikoak; hau da, Ipar Irlandako polizia gorrto gertakari moduan markatu dituen gertakari guztiak<sup>59</sup>. Eta, bestetik, fiskal batek, lege-xedapen baten arabera<sup>60</sup>, etsaitasunagatik astundutako (*aggravated by hostility*) gorrto delituztat hartutako kasuei buruzko datu estatistikoak. Datu horiek guztiak biltzen dituen azken txostenak<sup>61</sup> 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitarteko aldia hartzen du barne.

2019/20 aldirian, PPSk polizia gorrto-delitu gisa identifikatutako 334 kasu jaso zituen, horietako bakoitzak pertsona bat edo gehiagoren parte hartzea barne hartu zezakeelarik. Horrek esan nahi du 21 kasu gutxiago izan zirela 2018/19 urtearekin alderatuta. Kategoria babestuen arabera, polizia-sailkapeneko irizpideei jarraiki, 118 kasu arrazarekin lotu ziren (%35,33), 91 sektarismoarekin (%27,24), 54 homofobiarekin (%16,17), 36 fedeararekin/erlijioarekin (%10,78), 20 motibazioa anizkoitzarekin (%5,99), 8 desgaitasunarekin (%2,39) eta 7 transfobiarekin (%2,09)<sup>62</sup>. Delitu-kategoria nagusiaren arabera<sup>63</sup>, 201 kasu (% 60,18) pertsonaren aurkako indarkeria gisa sailkatuta daude (*violence against the person*), 49 (%14,67) kalte-delitu gisa (*criminal damage*), 48 (%14,37) zehaztu gabeko beste delitu-talde gisa (*all other offence groups*) eta 36 (%10,78) ordena publikoko delitu gisa (*public order*).

Gainerakoan, kasu bakoitzean pertsona batek baino gehiagok parte hartu ahal izan duten heinean, norbait formalki salatzeke erabakia pertsona horietako edozeinen aurka zuzendu daiteke. Beraz, jarraian datorren sailkapenak PPSk jasotako kasuen batean parte hartu duten pertsona guztien inguruan hartutako erabaki larriari egiten dio erreferentzia. Guztira, 448 erabaki hartu dira. Larritasun handienetik txikienera, 16 erabaki (%3,57) Koronako Auzitegian (*Crown Court*)<sup>64</sup> epaituak izan zitezten pertsonen aurkako karguak aurkezteko izan ziren (*indictable prosecution*); 206 (%45,98) Magistratu-Auzitegietan (*Magistrates' Courts*)<sup>65</sup> epaituak izan zitezten pertsonen aurkako karguak aurkezteko (*summary prosecution*), 31 (%6,92) neurri alternatiboak hartzeko (adibidez: mota horretako beste delituen bat eginez gero, neurriak hartuko direla formalki ohartaraztea) auzitegietara jo gabe (*diversion*), eta 195 (% 43,53) karguak ez aurkezteko (*decision for no prosecution*), dela behar adina froga-material ez dagoelako, dela karguak aurkezteak interes publikoaren aurka joatea ekarriko lukeelako<sup>66</sup>.

<sup>59</sup> PSNIk biktimaren aldeko definizio bat hartzen du, kasu kopuru potentzialki zabala barne biltzea lortuz. Definizioak honela dio: "*Biktimak edo beste edozein pertsonak arrazista gisa hautematen duen edozein gertakari*" (itzulpen propioa). Definizio hau PSNIk gorrto-delitu guztiei aplikatzen die (arrazza, sektarismoa, homofobia, transfobia, fedea/erlijioa eta desgaitasuna). PPS, "Statistical bulletin: Cases involving hate crime 2019/20", *Policy and Information Unit* (PPS), 2020, 24-25 or.

<sup>60</sup> Zehazki, *Criminal Justice (Criminal Justice (No. 2) (Northern Ireland) Order 2004* -aren 2. artikulua inguruan ikus: GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, "Euskadiko gorrto-gertakari buruzko 2019ko txostena", op. cit., 69-70 or. Ikus baita ere PPS ere, "Statistical... op. cit., 25-26 or.

<sup>61</sup> Aurrerantzean, erreferentzia estatistiko guztiak PPSri eginda ulertu behar dira, "Statistical... op. cit., 31 or.

<sup>62</sup> 2018/19an arrazari (132), sektarismoari (110) eta desgaitasunari (11) lotutako kasu gehiago egon baziren ere, homofobiari (50), fedeari/erlijioari (29), motibazio anizkoitzei (20) eta transfobiari (5) lotutako kasuak areagotu egin ziren 2019/20an.

<sup>63</sup> Delitu-kategoria nagusia (*primary offence*) delitu larrienerekin lotutakoa izango da normalean, legez ezar daitezkeen zehapen penalen arabera zehaztuko dena.

<sup>64</sup> Batzuetan bigarren auzialdi gisa jardun badezake ere, auzitegi nagusi bat da (*superior o senior court*), lehen auzialdian nolabaiteko larritasuneko zigor-prozedimenduak ezagutzen dituena.

<sup>65</sup> Lehen auzialdian larritasun txikiagoko kasu penalak ezagutzen dituen beheagoko auzitegiak dira (*inferior courts*).

<sup>66</sup> Konparaziorako, 2018/19an 432 erabaki hartu ziren. Larritasun handienetik txikienera, 12 erabaki (% 2,78) Koroako Auzitegian (*Crown Court*) epaituak izan zitezten pertsonen aurka karguak aurkezteko izan ziren (*indictable prosecution*); 209 (% 48,38) Magistratu-Auzitegietan (*Magistrates' Courts*) epaituak izan zitezten pertsonen aurka karguak aurkezteko (*summary prosecution*), 21 (%4,86) neurri alternatiboak hartzeko auzitegietara jo gabe (*diversion*), eta 190 (% 43,98) karguak ez aurkezteko erabakiak (*decision for no prosecution*).

*Summary prosecution* delakoa ardatz hartuta, pertsona gehien barne hartzen dituen erabaki-mota izanik, 151 akusatu kondenatu zituzten, gutxienez delitu batengatik<sup>67</sup> [arraza: 60; sektarismoa: 39; homofobia: 17; fedea/erlijioa: 17; motibazio anizkoitza: 12; desgaitasuna: 5; transfobia: 1], kondena tasa %69,91 izanik. Bestalde, 21 akusatu (%9,72) absolbitu zituzten, eta 44 akusaturen kasuan (%20,37) beste egoera batzuk gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.)<sup>68</sup>.

Azkenik, fiskal batek, lege-xedapen baten arabera, eta ez izaera polizialeko definizio baten arabera, etsaitasunagatik astundutako gorroto-delitutzat (*aggravated by hostility*) hartutako kasuei buruzko datuei dagokienez, 246 erabaki hartu dira. Berriz ere, larritasun handienetik txikienera, 19 erabaki (%7,72) Koroako Auzitegian (*Crown Court*) epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko izan ziren (*indictable prosecution*), 137 (% 55,69) Magistratu-Auzitegietan (*Magistrates' Courts*) epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko (*summary prosecution*), 17 (%6,91) neurri alternatiboak hartzeko auzitegietara jo gabe (*diversion*), eta 73 (%29,67), karguak ez aurkezteko erabakiak (*decision for no prosecution*)<sup>69</sup> izan ziren. Berriz ere *summary prosecution* delakoa ardatz hartuta, 119 akusatu kondenatu zituzten gutxienez delitu batengatik [arraza: 61; erlijioa: 35; sexu-orientazioa: 11; motibazio anizkoitza: 8; desgaitasuna: 4], kondena tasa %76,77koa izanik. Bestalde, 12 akusatu (%7,74) absolbitu zituzten, eta 24 akusaturen kasuan (% 15,48) beste egoera batzuk gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.)<sup>70</sup>.

## 1.4. Beste datu batzuen eguneratzea: Ingalaterra eta Gales

Ingalaterran eta Galesen gorroto-delituei buruzko informazio estatistikoaren irudi osatuagoa lortzeko, bi iturri ofizial hartuko ditugu kontuan, oso desberdinak beraien artean, bakoitza bere mugekin.

Lehenik eta behin, *Crime Survey for England and Wales* edo, siglen arabera, CSEW<sup>71</sup>. Aurrez aurreko biktimizazio-inkesta bat da, Ingalaterran eta Galesen bizi diren horien esperientzia pertsonalei buruzko informazioa ematen duena. Helburu horrekin, azken hiru urteko inkesten datuak konbinatzen dira, lagin handiagoa lortzeko eta estimazio fidagarriagoak egiteko. Adibidez, eskura dagoen azken datu-zerrenda 2017/18, 2018/19 eta 2019/20ko

<sup>67</sup> Gutxienez delitu batengatik kondenatuak izan direnak aipatzean (*convicted of at least one offence*), kontuan hartu behar da akusatu batzuk delitu desberdinenegatik kondenatuak izan daitezkeela, eta kategoria horren barruan sartzen direla – hala badagokio –gorrotoak eragindako delitutik (*hate motivated offence*) absolbituak baina beste delitu batengatik kondenatuak izan diren akusatuak ere.

<sup>68</sup> Konparaziorako, 2018/19an 155 akusatu kondenatu zituzten gutxienez delitu batengatik [arraza: 62; sektarismoa: 54; homofobia: 16; fedea/erlijioa: 6; motibazio anizkoitza: 15; desgaitasuna: 1; transfobia: 1], kondena tasa % 73,11koa izanik. Bestalde, 20 akusatu (% 9,43) absolbitu egin zituzten, eta 37 akusatuak dagokienez (% 17,45) beste egoera batzuk gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.)

<sup>69</sup> Konparaziorako, 2018/19an 265 erabaki hartu ziren. Larritasun handienetik txikienera, 13 erabaki (% 4,90) Magistratu-Auzitegietan (*Magistrates' Courts*) epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko (*summary prosecution*) izan ziren; 166 (% 62,64), berriz, Magistratu-Auzitegietan (*Magistrates' Courts*) epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko (*summary prosecution*), 10 (% 3,77) neurri alternatiboak hartzeko auzitegietara jo gabe (*diversion*), eta 76 (28,68%) karguak ez aurkezteko erabakiak izan ziren (*decision for no prosecution*).

<sup>70</sup> Konparaziorako, 2018/19an 128 akusatu kondenatu zituzten gutxienez delitu batengatik [arraza: 60; erlijioa: 36; sexu-orientazioa: 20; motibazio anizkoitza: 12; desgaitasuna: 0], kondena tasa% 80,50ekoa izan zelarik. Bestalde, 16 akusatu (% 10,06) absolbitu zituzten, eta 15 akusaturik dagokionez (% 9,43) beste egoera batzuk gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.)

<sup>71</sup> CSEWren datuak Barne Ministerioaren (*Home Office*) gorroto-delituen inguruko txostenean jasotzen dira; beraz, aurrerantzean CSEWren datuak aipatzen direnean eskuragarri dagoen azken txosten horri erreferentzia egiten ari zaiola ulertu behar da: HOME OFFICE, "Hate crime, England and Wales, 2019/20. Home Office Statistical Bulletin 29/20 ", *Home Office*, 2020, 19-29 or.

inkestei dagozkien datuen konbinazioari buruzkoa da<sup>72</sup>. Datu konbinatu hauen arazoa da, joera orokorrak eta epe luzekoak islatzeko potentziala baino ez dutela. Gainera, nahiz eta teoriarik ez diren delituak jaso daitezkeen, CSEWak ez ditu barne hartzen enpresa edo erakundeen aurka egindako delituak, Ingalaterran eta Galesen bizi ez diren (adib.: turistak) edo 16 urtetik beherakoak diren pertsonen aurka egindako delituak, edo "biktimarik gabeko krimenak" (*victimless crimes*) gisa katalogatuta daudenak, hau da, gizabanako identifikagarriak ez duten arau-hauste penalei dagozkienak, ordena publikoko delituak (*public order offences*) izan daitezkeen bezala<sup>73</sup>.

Estimazioak badira ere, CSEWk jasotzen dituen datu konbinatuek adierazten dute (2017/18tik 2019/20ra) 190.000 gorroto-delitu gertakari izan direla urtean (*hate crime incidents*)<sup>74</sup>. Hau da, CSEWak bere lana egiteko jasotzen dituen delituekin lotutako gertakari guztien (6,1 milioi) %3. Halaber, CSEWek erregistratutako gorroto-delitu gertakarien %47 poliziarik jakinarazten zaizkio. Kategorien arabera, 104.000 gertakari erasotzaileak biktimaren arrazarekiko zuen jarreragatik gertatu ziren, 50.000 gertakari biktimaren desgaitasunagatik, 42.000 biktimaren erlijioagatik, 23.000 biktimaren sexu-orientazioagatik eta 7.000 biktimaren genero-identitateagatik<sup>75</sup>. Delitu-tipologiari dagokionez, lehenik eta behin, nabarmentzekoa da gorroto-delitu gertakari baten biktimak pertsonen aurkako delitu bat jasateko arrisku handiagoa duela (*personal crime*), ondasun errealekin lotutako delitu bat baino (*household crime*)<sup>76</sup>. Horrela, pertsonen aurkako delituek guztizkoaren %59 (120.000 gertakari)<sup>77</sup> hartzen duten bitartean [lesiorik gabeko indarkeria (*violence without injury*), % 28; lesiodun indarkeria (*violence with injury*), % 17; pertsonari egindako ebasketa (*theft from person*), % 7; indarkeriaz edo larderiez egindako lapurreta (*robbery*), % 5; jabetza pertsonalarekin lotutako beste ebasketa batzuk (*other theft of personal property*), % 2], ondasun errealekin lotutako delituak guztizkoaren % 41 hartzen dute (70.000 gertakari)<sup>78</sup> [kalte-delitua (*criminal damage*), % 20; indarra erabiliz egindako lapurreta eta egoitza edo bizilekuaren bortxatzea (*burglary*), % 10; ibilgailu-ebasketa (*vehicle-related theft*), % 5; ondasun errealekin lotutako beste ebasketa bat (*other household theft*), % 5; bizikleta-ebasketa (*bicycle theft*) % 1]. Hala ere, ondasun errealekin lotutako delituen biktimen % 27k gutxienez beste biktimizazio bat jasan du gorroto-delitu gertakari beragatik azken urtean, pertsonen aurkako delituen kasuan % 16a delarik.

<sup>72</sup> CSEWen gorroto-delituen inguruko datu berriak 2020/21eko biktimizazio-inkestatik ateratako datuak kontuan hartuta argitaratzea aurreikusita bazegoen ere, Covid-19ren pandemiak 2020ko martxoan herritarrei elkarrizketak egiten jarraitzea eragotzi zuen. Ondorioz, datuak aurreratu egin ziren eskuragarri zeuden azken hiru urteetako inkestak konbinatuz (2017/18, 2018/19 eta 2019/20), eta 2020/21eko amaitu gabeko inkesta kanpoan utziz. Beraz, CSEWek argitalpena hiru urtean behin ateratzen duenez, 2017/18 urteko biktimizazio-inkesta kontuan hartu da, bai 2018an argitaratutako inkestaren konbinaziorako, bai 2020an argitaratu berri den inkestaren azken konbinaziorako.

<sup>73</sup> Delitu hauek poliziak erregistratzen dituen gorroto-delitu guztien erdia baino gehiago dira.

<sup>74</sup> Aurreko estimazioek – hau da, 2015/16tik 2017/18ra bitarteko datu konbinatuek – kopuru pixka bat txikiagoa eskaintzen zuten, 184.000 gertakari urteko. Era berean, nabarmentzekoa da 2007/08 eta 2008/09 arteko biktimizazio-inkestaren konbinaziotik zenbatetsitako intzidenteen kopurua 307.000koa dela. Beraz, behar bada nabarmena egon da, nahiz eta azken urteotan behar bada hori horren handia izan ez den, kurba "lantu" delarik.

<sup>75</sup> Batuketak 190.000 gertakariaren kopurua gaintzen du, 190.000 gertakari hauen baitan biktimak delitua babestutako kategoria batek baino gehiagok eragin duela adierazi ahal izan duelako.

<sup>76</sup> Delitu pertsonalak (*personal crimes*) pertsonari zuzentzen zaizkionak dira, norberaren esperientziarekin lotzen direnak, eta ez etxe bereko beste batzuen esperientziarekin. Ondasun errealekin lotutako delituek (*household crimes*) jabetza batean kalteak edo lapurretak eragiten dituztenak dira, eta momentuan toki horretan bizi den beste edozein pertsonari eragiten diote.

<sup>77</sup> 120.000 gertakari hauetako bakoitza babestutako kategoria bat baino gehiagok eragin ahal izan duela kontuan hartuta, ikus honako datu banaketa hau babestutako kategoriaren arabera: arraza (66.000), erlijioa (30.000), desgaitasuna (27.000), sexu-orientazioa (19.000) eta genero-identitatea (4.000).

<sup>78</sup> 70.000 gertakari hauetako bakoitza babestutako kategoria bat baino gehiagok eragin ahal izan duela kontuan hartuta, ikus honako datu banaketa hau babestutako kategoriaren arabera: arraza (39.000), desgaitasuna (23.000), erlijioa (12.000), sexu-orientazioa (4.000) eta genero-identitatea (3.000).

Bigarrenik, CSEWren zenbait datu aztertu ondoren, gorroto-delituen polizia-erregistroei buruzko informazioa ere aipa dezakegu (*police reorded hate crimes data*). CSEWek emandako informaziotik bereizten da, besteak beste, urtean behin argitaratzen den heinean, eta biktimizazio-inkestan kanpo geratzen diren supostu haiek barne hartzen dituen heinean<sup>79</sup>. Beraz, eskura dauden azken datuetan arretoa jarrita (2019/20)<sup>80</sup>, Ingalaterra eta Galesko poliziak 105.090 gorroto-delitu erregistratu zituen, %8ko igoera egon delarik 2018/19 urtearekin alderatuta (97.446). Delitu horietako bakoitza eragin zuten arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeela kontuan hartuz, guztira 109.736 motibazio-faktore egon ziren aipatutako 105.090 delituetan. Intzidentzia-ordenaren arabera, kategoria hauek aurki ditzakegu: arraza (76.070 – %69,32; %6ko igoera 2018/19 urtearekiko), sexu-orientazioa (15.835 – %14,43; %19ko igoera 2018/19 urtearekiko), desgaitasuna (8.469 – %7,72; %9ko igoera 2018/19 urtearekiko), erlijioa (6.822 – %6,22; %5eko beherakada 2018/19 urtearekiko)<sup>81</sup> eta transgeneroa (2.540 – %2,31; %16ko igoera 2018/19 urtearekiko).

Gainerakoan, garrantzitsua da azpimarratzea arraza- edo erlijio-gorroto delitu guztien erdia baino gehiago (%56) tipo penal astundu gisa erregistratzen direla, astundu gabeko beren homologoekin alderatuta guztiz bereizitako kategoria osatzen dutelarik; hau da, oro har, arrazagatik edo erlijio arrazoiengatik astundutako eraso-delituei, besteren jabetzako kalte-delituei, ordena publikoaren aurkako delituei eta zirikatze- edo jazarpen-delituei buruz hitz egiten dugu, *Crime and Disorder Act 1998*-eko 28 eta 32 artikuluan oinarrituz<sup>82</sup>. Era berean, delitu astundu horietatik guztietatik –polizia-indarrek hala erregistratutakoetatik– polizia-ikerketaren azken emaitza zein izan den ere ezagutu daiteke. Horrela, ordena publikoaren aurkako delituen %11k akusazioak/zitazioak (*charges/summons*) eragin dituzte, baita pertsonen aurkako delituen %10ek (hau da, eraso-delituak, lesioarekin edo lesiorik gabe, eta zirikatze edo jazarpen-delituak) eta kalte-delituen %9k ere.

Aurrekoa jakinda, poliziak erregistratutako 105.090 gorroto-delituei lotutako 109.736 faktore motibazionalen delitu-tipologiaren arabera banaketa honako hau da: ordena publikoaren aurkako delituak (58.477 – %53)<sup>83</sup>, pertsonen aurkako indarkeria-delituak (41.838 – %38)<sup>84</sup>, kalte- eta sute-delituak (5.591 – %5)<sup>85</sup> eta beste delitu batzuk (3.830 – %4)<sup>86</sup>.

<sup>79</sup> Polizia-erregistroei buruzko informazioak duen arriskua, ordea, bikoitza da. Lehenik eta behin, CSEWrekin gertatzen zenaren kontrara, datu hauek ez dute National Statistics-en estatusa, zeina, azken finean, Erresuma Batuko Estatistiken Kontseilu Nazionalak (UK Statistics Authority) ematen duen –bere ardurapeko organoen bitartez –, estatistika horiek Code for Practice for Statistics delakoarekin bat datozenean. Horrela bakarrik gainditzen da argitaratzen den informazio estatistikoaren fidagarritasun, kalitate eta balioaren estandarrik altuena. Bigarrenik, gogorarazi behar da gorroto-gertakari asko poliziaren ezagutzatik kanpo geratzen direla, hau muga handi bat delarik gorroto-kriminalitatearen benetako eragina ezagutu ahal izateko. Ikus OFFICE FOR STATISTICS REGULATION (OSR), "Code for Practice for Statistics. Ensuring official statistics serve the public", UK Statistics Authority, 2018.

<sup>80</sup> Datu hauek lurraldeko hainbat polizia-indarretatik datoz, Greater Manchester Police-tik izan ezik, ezin izan baitzuen 2019/20 aldirako daturik eman.

<sup>81</sup> Zehazki, arrazoi erlijioek eragindako 6.822 gorroto-delituetatik, 6.203ri (%91) buruz informazio gehiago helarazi da. Informazio horrek, datua ezagutzen ez den kasuak alde batera utzita (%13), adierazten du delitu horien erdiak musulmanen aurkakoak izan zirela (3.089 – %50), eta judutarren kolektiboa, berriz, intzidentzia-kopuru handiena izan zuen hurrengo ia zango zela (1.205 – %19).

<sup>82</sup> Zehatz-mehatz, ikus GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINZA, "Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2018ko txostena", op. cit., 51-52 or.

<sup>83</sup> Motibazio-faktorearen arabera banaketa zehatzagoa honako hau da: arraza (43.691), sexu-orientazioa (7.526), erlijioa (3.286), desgaitasuna (2.999) eta transgeneroa (975).

<sup>84</sup> Motibazio-faktorearen arabera banaketa zehatzagoa honako hau da: arraza (26.439), sexu-orientazioa (7.169), desgaitasuna (4.404), erlijioa (2.477) eta transgeneroa (1.349).

<sup>85</sup> Motibazio-faktorearen arabera banaketa zehatzagoa honako hau da: arraza (3.669), erlijioa (851), sexu-orientazioa (536), desgaitasuna (441) eta transgeneroa (94).

<sup>86</sup> Motibazio-faktorearen arabera banaketa zehatzagoa honako hau da: arraza (2.271), desgaitasuna (625), sexu-orientazioa (604), erlijioa (208) eta transgeneroa (122).

Polizia-ikerketan egin ondoren, poliziak berak hasiera batean gorroto-delitu gisa markatutako delituen %93k azken emaitza bat dute esleitura<sup>87</sup> (gainerako %7a ikerketa amaitzeko zain dago emaitza bat esleitzeko). Horrela, gorrotoak eragindako delitu gisa markatutako ordena publikoko delituen %10ek akusazioak/zitazioak eragin dituzte, baita pertsonen aurkako indarkeriako delituen %7k eta kalte eta suteetako delituen %7k ere.

Estatuko Fiskaltza Nagusia (*Crown Prosecution Service* edo, siglen arabera, CPS) Ingalaterra eta Galesen gorroto-delituengatik aurkezten diren akusazio formalen kopurua argitaratzeaz arduratzen da. Zehazki, 2019an/20an<sup>88</sup> 10.950 akusazio aurkeztu ziren gorroto-delituengatik, %15eko beherakada egon zelarik 2018/19arekin alderatuta (12.828). Aurkeztutako 10.950 akusazioen emaitza kondena-epaia izan da 9.340 kasutan, kondena tasa % 85,3koa izanik. Arrazari lotuta aurkeztutako 8.532 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien %77,92) 7.268k kondena epaia lortu zuten, % 85,2koa izanik kondena tasa. Homofobiarekin lotuta aurkeztutako 1.514 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien %13,83) 1.327k kondena epaia lortu zuten, %87,6koa izanik kondena-tasa. Erlijioaren inguruan aurkeztutako 453 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien %4,14) 384k kondena epaia lortu zuten, %84,8koa izanik kondena-tasa. Desgaitasunari lotuta aurkeztutako 360 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien %3,29) 292k kondena epaia lortu zuten, %81,1ekoa izanik kondena tasa. Eta, azkenik, transfobiaren inguruan aurkeztutako 91 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 0,83) 69k kondena epaia lortu zuten, %75,8koa izanik kondena-tasa.

Oraindik ez da argitaratu 2019/20 aldiko datuak biltzen dituen txostena, CPSk gorroto-delituen arloan aurkeztutako akusazio horien atzean dauden delitu-tipologia zehatzak ezagutzea ahalbidetzen duena<sup>89</sup>.

## ■ 2. FRANTZIA

### 2.1. Errealitate empirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera

Frantziako gorroto-delituei buruz OSCE/ODIHR erakundeak darabilen estatistika-informazio berriena 2019koa da<sup>90</sup>, herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari berari emandako datuen irauketaren arabera. Guztira, 2.640 gorroto-delitu erregistratu dituzte polizia-erakundeek. Aurrekoaz gain, gorrotoa edo indarkeria, difamazioa edo irain publikoak bultzatzeko beste 3.409 delitu OSCE/ODIHR erakundeari iritsi zaizkio, baina «gehien-gehienetan» erakunde horrek gorroto-delituzat hartzen duenari buruz ematen duen definiziotik kanpo geratzen dira, eta, beraz, ez dira gainerako gorroto-delituei gehitzen.

<sup>87</sup> Zehaztu behar da, kasu honetan, Ingalaterran eta Galesen 44tik 31 polizia-indarrek soilik eman dituztela datu egokiak.

<sup>88</sup> Aurrerantzean egiten den erreferentzia oro honakoari egiten zaiola ulertu beharko da: CPS, "CPS data summary Quarter 4 2019-2020", CPS, 2020. Esteka: <https://www.cps.gov.uk/publication/cps-data-summary-quarter-4-2019-2020>.

<sup>89</sup> Ikus orain arte argitaratutako txosten guztiak biltzen dituen fitxategia esteka honetan: <https://www.cps.gov.uk/publication/hate-crime-reports>

<sup>90</sup> Online sarbidea: <https://hatecrime.osce.org/france>. Aurrerantzean datuak eguneratze hutsa egingo bada ere, interesgarriak izan daitezkeen beste iruzkin batzuk egiteko, hona jo behar dugu: CATEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2018", op. cit., 58-62. orr.



Egilearen zioari edo zioei dagokienez, datuak bereizita daude, baina kategorien arteko bikoiztasunak egon daitezkeela adierazten da<sup>91</sup>. Aurrekoa kontuan hartuta, jarraian datorren sailkapenak poliziak erregistratutako gorroto-delituetan dauden epaitu aurreko zioen kopurua ordenatzen du handienetik txikienera: kristauen aurkako aurreiritzia (2.038), arrazakeria eta xenofobia (1.336), sexua<sup>92</sup> (1.221), antisemitismoa (741), musulmanen aurkako aurreiritzia (204) eta beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritzia (11). Delitu-tipologiaren arabera, honako prebalentzia erregistratu da: lesio fisikoak (2.080)<sup>93</sup>, mehatxuak eta jokabide mehatxagarria (1.956), kultu-lekuen aurkako erasoak (891), zehaztu gabe<sup>94</sup> (262), hilobien profanazioa (228), indarkeria eragitea (127) eta gizahilketa/erailketa (7).

Delitu-tipologiaren arabera, honako prebalentzia hau erregistratu da: lesio fisikoak (2.080), mehatxuak eta jokabide mehatxagarria (1.956), kultu-lekuen aurkako erasoak (891), zehaztu gabe (262), hilobien profanazioa (228), indarkeria bultzatzea (127) eta giza hilketa/erailketa<sup>95</sup>(7).

Azkenik, delitu-tipologiak eta egile-motibazioak gurutzatzean, hurrengo datuak lortzen dira:

- Gorrotoa eragiteko 127 delituetatik, guztiak sexuari zor zaizkio
- Lesio fisikoetako 2.080 delituen artean: 934 kristauen aurkako aurreiritziari zor zaizkio; 569 sexuari; 301 arrazakeriari eta xenofobiari; 151 antisemitismoari; eta 63 musulmanen aurkako aurreiritziari.
- Mehatxu eta portaera mehatxagarriko 1.956 delituen artean: 845 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 536 antisemitismoari; 428 sexuari; 91 musulmanen aurkako aurreiritziari; eta 56 kristauen aurkako aurreiritziari.
- Gurtzarako lekuen aurkako 891 erasoetatik 791 kristauen aurkako aurreiritziari dagozkio; 46 antisemitismoari; 43 musulmanen aurkako aurreiritziari; eta 11 beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritziari<sup>96</sup>.
- Zehaztu gabeko 262 delituetatik 165 arrazakeria eta xenofobiari dagozkie; eta 97 sexuari.
- Hilobiak profanatzeko 228 delituetatik: 195 kristauen aurkako aurreiritziagatik; 18 arrazakeria eta xenofobiagatik; 8 antisemitismoagatik; eta 7 musulmanen aurkako aurreiritziagatik dira.
- Gorrotoa eragitearen 127 delituetatik, guztiak sexuari zor zaizkio

Azkenik, OSCE/ODIHR erakundeak ez du daturik eman auzipetutako gorroto-delituen kopuruari buruz, ezta Frantzia ezarritako zigorrei buruz ere.

<sup>91</sup> Zehazki, "Arrazakeria eta xenofobia" kategoriar buruzko datuek erlijio batekoa izateagatik – benetakoa edo ustezkoa – egindako delituen beste datu batzuk ere xurgatzen dituzte. Beraz, gertakari antisemitik, antimusulmanak eta antikristauak, bakoitza bere aldetik agertzen badira ere, arrazakeria eta xenofobia kategoriar gehitu dira. Aitzitik, gertakari antisemitei, musulmanei eta antikristauari buruzko zifra osoak eskaintzen direnean, esaten da arrazakeria eta xenofobia kategoriarekin ere jakinarazi direla eta, beraz, bi aldiz "ager daitezkeela". Ez da askoz gehiago argitzen. Edonola ere, ohar argigarriren baten faltan, ez dirudi ematen diren datuetan motibazio anizkunak islatzen ari direnik.

<sup>92</sup> Kategoria honetako datuek barnean hartzen dituzte sexuan eta generoan oinarritutako aurreiritziengatik burututako delituak, bai eta sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako aurreiritziak ere.

<sup>93</sup> Kategoria honetan, besteak beste, «sexu-indarkeriari» buruzko datuak daude.

<sup>94</sup> Kategoria hau jabetzaren aurkako delituei buruzkoa dela ulertu behar da, eta kategoria konbinatu hauek barne hartzen ditu: «Indarkeria edo larderia bidezko lapurreta», «ebasketa», «indarra erabiliz lapurreta eta bortxaketa», «Jabetzari kalteak» eta «sutea».

<sup>95</sup> Atariko datuak dira, hilketa/erailketa saiakerak barne.

<sup>96</sup> Gurtza lekuen aurkako erasoek Jehovaharen lekukoekin lotutako lekuekiko bederatzi eraso eta budistekin lotutako bi eraso barne hartzen dituzte.

## 2.2. Errealitate enpirikora hurbilketa: beste datu batzuk

Giza Eskubideen Aholku Batzorde Nazionalaren (CNCDH) txostenaren azken edizioak, hogeita hamargarrenak, arrazakeriaren eta xenofobiaren arloko 2019ko urteko datuak jasotzen ditu. Horretarako, urtero, Hezkuntza Nazionalako Ministerioak, Barne Ministerioak eta Justizia Ministerioak arrazakeriaren aurkako borrokaren esparruan egindako jardueraren balantze estatistikoaren berri ematen diote Giza Eskubideen Batzorde Nazionalari. Era berean, txosten honek Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak aurreko urteetan egindako gomendioen jarraipena ere egiten du, bai eta Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak 2019ko abenduan arrazismoaren, antisemitismoaren eta LGBTB kolektiboaren aurkako gorrotoaren aurka borrokatzeko ministerioarteko ordezkariari jakinarazitako analisi eta proposamenak ere.

Barne eta Justizia Ministerioen jarduera-balantzeek arau-haustea diren arrazakeria gertakarien proportzioa erakusteko balio dute. Halaber, aipagarria da Barne Ministerioak bi balantze osagarri aurkezten dituela: alde batetik, Barne Segurtasuneko Ministerioko Estatistika Zerbitzuarena (SSMSI), polizia-zerbitzuen eta jendarmeria-zerbitzuen benetako jarduera islatzen duena; eta, bestetik, Lurralde Informazioko Zerbitzu Zentralarena (SCRT), toki-ko homologoek informatzen dituzten gertakarien jarraipena egitea ahalbidetzen duena. Aurrekoari gehitu behar zaizkio informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako kriminalitatearen aurkako borrokaren bulego nagusiaren (OCLCTIC/SDLC) salaketak harmonizatu, aztertu, berreskuratu eta orientatzeko plataformak (PHAROS) bildutako datuak, Frantzia diskriminazio egoeraren irudi osoago batera hurbiltzen gaituztenak, online burututako gorroto-delituak eta jokabide diskriminatzaileak jasotzean.

2019ko SMSIren balantze estatistikoak poliziak eta jendarmeriak erregistratutako prozedurei buruzko datuak jasotzen ditu, Zigor Kodean «arraza, jatorri, etnia edo erlijio arrazoiengatik» egindako arau-hauste batzuk oinarri hartuta (4. eta 5. motako krimenak, delituak eta urraketak). Urte horretan, poliziak eta jendarmeriak 10.830 arau-hauste inguru erregistratu zituzten Frantziako lurralde osoan, arraza, jatorri, etnia eta erlijioarekin lotura esplizitua zutenak. 10.830 arau-hauste horietatik, 5.730 krimen eta delitutzat jo ziren (%52,9), eta 5.100 4. eta 5. mailako urraketatzat (%47.1).

Hiru urtez jarraian behera egin ondoren (%4 2017 eta 2018 artean eta %11 2016 eta 2017 artean), aurtent %11ko igoera erregistratu da aurreko urtekoarekin alderatuta. Egia bada ere erregistratutako prozeduren kopuruak nabarmen egin duela gora aurreko bi urteekin alderatuta, beharrezkoa da igoera hori ekintza arrazistak garatzeko egokia den testuinguru baten bilakaerarekin lotzea. 2015. eta 2016. urteetan, bi atentatu bereziki hilgarri izan ziren Frantzian, erasoaren ondorengo hilabeteetan, eta biktimaren jatorria, etnia, nazionalitatea, arraza eta erlijioa (benetakoa edo ustezkoa) oinarri zituzten arau-hausteak egin ziren, batez ere Charlie Hebdo eta Hiper Cacher atentatuen ondoren, 2015eko urtarrilean. 2017an, ordea, delitu-tipologia batzuek beherakada nabarmena izan zuten (kalteak, irainak, lesioak, etab.), eta horrek aurreko urteetan erregistratutako jaisiera orokorra ekarri zuen, eta gauza bera esan daiteke, neurri txikiagoan bada ere, 2018. urtearekin alderatuta; izan ere, urte horretan erregistratutako ekintzen beherakada txikia probokazio-, irain- eta difamazio-delituen jaisieraren ondorio da.

2019an, ordea, delitu-tipologia jakin batzuetan gorakada nabarmena gertatu da (% 50 mehatxuetan eta xantaitetan, %26 diskriminazio-delituetan eta %60 ondarearen aurkako atentatuetan). Aurrekoa Frantzian aldi horretan bizi izan zen tentsio sozialaren ondorioa izan daiteke, batez ere judutarren eta ijitoen erlijioako pertsonen aurka eta urte horren hasieran. Aurrekoa ez da eragozpena elkarren artean baztertzailak ez diren beste kausa batzuk ere egon daitezkeen, delitu-tipologia horien erregistroa handitzen lagundu dezaketenak: gorroto-delituen igoera erreal, biktimek egindako salaketen gorakada eta estatuko indar eta kidegoek biktimekiko duten tratua- ren hobekuntza.

Urraketek, bestalde, %26ko igoera nabarmena izan dute 2019an, 2018an %6 eta 2017an %2 igo ondoren.

Auzi arrazisten egitura egonkorra da: izaera kriminaleko edo delituzko arau-hauste gehienak, eta probokazio, irain edo difamazioei dagozkienak (%70.9). Nabarmenezkoak dira, neurri txikiagoan bada ere, mehatxuak eta xantaiak (%15.2), pertsonen aurkako atentatuak (%5.24), diskriminazioak eta ondasunen aurkako atentatuak (%4.2 bakoitzak).

Profilari dagokionez, erasotzaileen %74 inguru eta biktimen %58 gizonak izan ziren. Adinari dagokionez, biktimak, oro har, tarteko adinekoak izan ziren; izan ere, biktimen %70 25 eta 54 urte bitartekoak ziren. 25 urtetik beherakoen (%16 inguru, biztanleriaren %30 direnean) eta 55 urtetik gorakoen (%13 inguru, biztanleriaren %33 direnean) ageriko ordezkari txikia salatze joera txikiaren ondorio izan daiteke, batez ere gazteen kasuan, eta ez hainbeste adierazpen arrazisten aurreko esposizio txikiagoaren ondorio. Erasotzaileen kasuan, berriz, gazteak ere gutxiegi ordezkariak zeuden arren (%35 35 urtetik beherakoak izan ziren, biztanleen %66 izan direnean), 55 urtetik gorakoak gehiegi ordezkariak zeuden (erasotzaileen %25 izan ziren, biztanleriaren %6 direnean).

Bestalde, atzerritarrek ordezkari handiegia dute biktimen zenbaketan. Izan ere, krimenen eta delituen biktimen %19<sup>97</sup> izan ziren. Nagusiki, Afrikako kontinentetik etorritako pertsonak dira kaltetuenak (%15 talde horretako kide dira, nahiz eta biztanleriaren %3 baino gutxiago izan). Logikoaenez, ordezkari hori ez da erasotzaileen kasuan islatzen; izan ere, erasotzaileen %9 baino ez baitziren Frantziako lurraldetik kanpo jaiotakoak. Nabarmenezkoa da, ingurumenaren ikuspegitik, aurreko txostenetan aipatu den bezala, jendetza handiek izaera arrazistako adierazpenak faboratzen dituztela: lehen aipatutako delitu eta krimenen bi heren inguru Parisen (%32) edo 200.000 biztanletik gorako hiriguneetan (%31) biltzen dira. Aitzitik, landa-eremuetako udalerriak dira horrelako gertakari arrazistek gutxien eragituak direnak (biktimen %6).

Fiskaltzan eta epailetzan arreta jarritz, 2018an 6.603 auzi iritsi ziren Fiskaltzaren eskuetara, eta 6.107 pertsona auzipetu zituzten. Auzipetutako pertsona guztien artean, %48.1 (2.940 kasu) irain eta difamazioengatik izan ziren; %38,9 (2.376 kasu) pertsonen aurkako atentatuengatik; %10,4 (1.263 kasu) diskriminazioengatik; eta gainerako %2,5 ondasunen aurkako atentatuengatik. Era berean, 2018. urtean 393 arau-hauste arrazista edo arrazakeriaren astungarria oinarri hartuta egindakoak zigortu ziren; kopuru hori nahiko txikia da aurreko urteekin alderatuta. Zehatutako arau-hauste horien erdia baino gehiago (%52) irain eta difamazioengatik ezarritako kondenak dira.

Aurretik azaldutako guztiaz gain, arrazakeria/xenofobiatik haratagoko datu batzuk ere aurki daitezke. Zifra horiek nahiko urrun daude SCRTK jakinarazitakoetatik, azken urtean ere goranzko joera markatzen baitute, 2015 eta 2017 artean beheranzko joera jarraitua izan ondoren. Zehazki, 2019an erregistratutako igoera %54koa izan zen egintza islamofoboetan (154 egintza 2019an, 2018ko 100 egintzekin alderatuta), %27koa ekintza antisemitetan (687 egintza 2019an, 2018ko 541 egintzekin alderatuta) eta %131ekoa gainerako egintza arrazistetan (154 egintza 2019an, 2018ko 100 egintzekin alderatuta). Guztira, 1.604 mehatxu eta 379 ekintza erregistratu dira<sup>98</sup>.

Bestalde, arrazismoaren, antisemitismoaren eta LGBTI aurkako gorrotoaren aurkako borrokari buruzko Ministerio arteko Ordezkariak (DILCRAH), Barne Ministerioako Barne Segurtasuneko Ministerioko Estatistika Zerbitzuaren (SSMI) laguntzarekin, datuak biltzen ditu, eta urtero inbentario bat egiten du segurtasun-indarrek erregistratu-

<sup>97</sup> Horri dagokionez, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalaren txostenak berak adierazten du interesgarria litzatekeela bereiztea, Frantziako nazionalitatea duten biktimen artean, horietatik zenbat diren etorkinen ondorengoak edo bigarren belaunaldiko etorkinak. Izan ere, "*Cadre de vie et sécurité*" biktimizazio-inkestaren arabera, migratzaileek eta haien ondorengoek aukera gehiago dituzte horrelako delitu bat jasateko nazionalak baino.

<sup>98</sup> COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), "La lutte contre le racisme, l'antisémitisme et la xénophobie", CNCDH, Paris, 2020.

tako krimenen eta delituen biktimei buruz (polizia eta gendarmeria), hau da, sexu-orientazioan edo -identitatean egindako delituei buruz. Ildo horretan, polizia eta jendarmeriako indarrek 1.870 arau-hauste homofobo edo transfobo erregistratu zituzten 2019an, aurreko urtean baino %36 gehiago. Arau-hauste horietatik guztietatik, irainak erregistratutako arau-hausteen %33 dira, eta, ondoren, abusu fisiko edo sexuala (ekintzen %28). Arau-hauste horien biktima gehienak gizonak (%75) eta gazteak (biktimen %62 35 urtetik beherakoak ziren) izan ziren. Gertakarien %36 200.000 biztanletik gorako hiriguneetan gertatu ziren<sup>99</sup>.

PHAROS plataformaren eskutik Internet bidez egindako gorroto-delituei soilik erreparatzen badiegu, 17.555 salaketa jarri dira 2019an mota horretako delituengatik (Internet bidez egindako delituengatik jasotako salaketa guztien, 228.545, %7.68,). Jasotako salaketa gehienak irain eta difamazio xenofobo edo diskriminatzaileak dira (%55.9), eta horien atzetik datoz, neurri txikiagoan bada ere, gorrotoa eta arraza-, etnia- edo erlijio-bereizkeria publikoki eragitea (% 32.5) eta biktimaren sexu-orientazioan oinarritutako gorrotoa eta diskriminazioa publikoki eragitea (% 6.5). Urtez urte delitu horiek egiteko biderik ohikoena sare sozialak dira, Twitter bereziki.

Azkenik, CNCDHK jakinda administrazio-estatistikek ez direla gai Frantzia gaiaren egoera zehatza marrazteko, bere adierazgarritasunari eragiten dion "zifra beltza" kontuan hartzearen alde egin du, ezagutzen diren gertakarien kopurua benetan egindakoena baino askoz txikiagoa delako. Hurbilketa hori osatzeko eta azpideklarazioaren eragina mugatzeko asmoz, izaera soziologikoko beste iturri batzuk erabiltzen ditu, hala nola "Bizitza- eta segurtasun-taula" izeneko inkestak. Inkesta hauek INSEE erakundeak 2007an sortu zituen, Delinkuentziaren eta Erantzun Penalen Behatoki Nazionalarekin (ONDRP) lankidetzan, aurreko bi urteetan herritarrek jasan ahal izan dituzten delitu-egitateak ezagutzeko eta segurtasun-gabezia subjektiboaren pertzepzioa identifikatzeko asmoz. Inkesta hori urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan egiten da, gutxi gorabehera Frantzia metropolitarrako 25.500 etxetan<sup>100</sup>.

Gorroto-delituei dagokienez, inkestaren azken edizioak ematen duen datu bakarra da elkarrizketatutako pertsonen %9,3k irainen biktima izan zirela adierazi zutela. Jasandako diskriminazio-irainen artean, %25 sexistak ziren, ondoren arrazistak, antisemitak edo xenofoboak (%11) eta, neurri txikiagoan, homofoboak (%3) doazelarik<sup>101</sup>.

<sup>99</sup> MINISTÈRE DE L'INTERIEUR, "Crimes et délits anti-LGBT enregistrés par les forces de police et de gendarmerie en 2019", *Ministère de l'intérieur*, Paris, 2020, Online sarbidea: <https://www.interieur.gouv.fr/Actualites/Communiqués/Crimes-et-délits-anti-LGBT-enregistrés-par-les-forces-de-police-et-de-gendarmerie-en-2019>

<sup>100</sup> COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), "La lutte contre... *op. cit.*

<sup>101</sup> SERVICE STATISTIQUE MINISTÉRIEL DE LA SÉCURITÉ INTÉRIEURE, Résultats de l'enquête «Cadre de vie et sécurité» 2019: Victimation, délinquance et sentiment d'insécurité, Ministère de l'intérieur, Paris, 2019 Online sarbidea: <https://www.interieur.gouv.fr/Interstats/Actualites/Rapport-d-enquete-Cadre-de-vie-et-securite-2019>

## ■ 3. ALEMANIA

### 3.1. Errealitate enpirikoa, OSCETik ateratako datuen arabera

Alemaniko gorroto-delituei buruz OSCE/ODIHR erakundeak darabilen estatistika-informazio berriena 2019koa da<sup>102</sup>, herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari emandako datuen arabera. Guztira, 8.585 gorroto-delitu erregistratu dituzte polizia-erakundeek. Zehazten denez, kalkulu horretan gorroto-diskurtsoaren delitu «batzuk» sartzen dira, baina ez dira zenbatuko kategorien arabera banakapenari begira, erakunde horrek gorroto-delitutzat jotzen duen definiziotik kanpo geratzen baitira.

Egilearen motibazioei edo eragingarrii dagokienez, datuak bereizita agertzen dira. Gainera, argitzen da askotariko motibazioak gertakari jakin batean konprometitutako kategoria guzti-guztietan zenbatzen direla. Aurrekoa kontuan hartuta, jarraian datorren sailkapenak eragin handienetik txikienera ordenatzen ditu poliziak erregistratutako gorroto-delituetan dauden 2.469 aurreiritzi eragingarri [móviles prejuicios]<sup>103</sup>: arrazakeria eta xenofobia (1.651), antisemitismoa<sup>104</sup> (273), sexu-orientazioa edo genero-identitatea (248), musulmanen aurkako aurreiritzia (207), kristauen aurkako aurreiritzia (57), beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritzia (14), eta erromani eta sintien aurkako aurreiritzia (14). Delitu-tipologiaren arabera, honako prebalentzia hau erregistratzen da: lesio fisikoak (997), ondasunei eragindako kalteak<sup>105</sup> (940), mehatxuak eta mehatxuzko portaera (397), ebasketa/lapurreta (83), hilobien profanazioa (19), sutea (17) eta giza hilketa/erailketa (16).

Azkenik, delitu-tipologiak eta egile-motibazioak gurutzatzean, datu hauek lortzen dira:

- Lesio fisikoen 997 delituen artean: 736 arrazakeria eta xenofobiari zor zaizkio; 140 sexu-orientazioari edo genero-identitateari; 49 musulmanen aurkako aurreiritziari; 44 antisemitismoari; 11 kristauen aurkako aurreiritziari; 7 beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritziari; 6 erromanien eta sintien aurkako aurreiritziari; eta 4 desgaitasunari.
- Ondasunei eragindako kalteen 940 delituen artean: 554 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 165, antisemitismoari; 116, musulmanen aurkako aurreiritziari; 67, sexu-orientazioari edo genero-identitateari; 31, kristauen aurkako aurreiritziari; 4, erromanien eta sintien aurkako aurreiritziari; eta 3, beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritziari.
- Mehatxu eta mehatxuzko portaeren 397 delituen artean: 280 arrazakeria eta xenofobiari zor zaizkio; 40, antisemitismoari; 33, musulmanen aurkako aurreiritziari; 29, sexu-orientazioari edo genero-identitateari; 11, kristauen aurkako aurreiritziari; 2, beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritziari; 1, erromanien eta sintien aurkako aurreiritziari; eta 1, desgaitasunari.

<sup>102</sup> Online sarbidea: <https://hatecrime.osce.org/germany>. Aurrerantzean datuen eguneratze hutsa egingo bada ere, interesgarriak izan daitezkeen bestelako iruzkinak egiteko ikus CATEDRA UNESCO DE derechos Humanos Y PODERES PUBLICOS/ERTZAINZA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2018", op. cit., pp. 58-60 eta 62-65. Bestalde, gogorazi behar da 2019a urte garrantzitsua dela. 2018ko urtarilean Alemaniako lehen *Land* edo estatu federatua judizializatutako gorroto-delituen bilketa estatistikoarekin hasi bazen, informazio hori Justizia Bulego Federalera (zifra horiek guztiak biltzen dituen) bidaltzeko, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera estatu mailako datuak biltzen hasten dira. Hala eta guztiz ere, ECRI bezalako erakundeek duela gutxi adierazi dute Alemaniako agintarien aldetik ez zutela oraindik informaziorik jaso datu berriekin gorroto-istiluak jarraitzeko trazabilitate-ariketa bat egin ote zitekeen jakiteko, istiluen hasierako ikerketa-fasetik gorroto-delituren batengatik epaia emateko fasera arte. Argiagoa izatea eta horri buruzko azterketak egitea gomendatzen da. EUROPEAN COMMISSION AGAINST RACISM AND INTOLERANCE (ECRI), "ECRI report on Germany (sixth monitoring cycle)", *Consejo de Europa, Estrasburgo*, 2020, párrs. 35 y 63.

<sup>103</sup> Adierazten denaren arabera, gorroto-delitu bakar bat egon daiteke erregistratuta, eta horren atzean aurreiritzizko motibazio bat baino gehiago egon daitezke. Hala ere, gogoratu behar da poliziak erregistratutako 8.585 gorroto-delituen ondorioetarako zenbatzen ziren gorroto-diskurtsoaren delituak ez direla zenbatzen orain datuak kategorien arabera bereizteko.

<sup>104</sup> OSCE/ODIHR erakundeak argitu du "hilerri juduen aurkako erasoak" kategoria bereiziarri ere jarraipena egiten zaiola. Zehazki, 2019an mota horretako 34 gertakari izan ziren, baina ez dira estatistika honetan sartu.

<sup>105</sup> Kategoria honek bandalismo kasuak barnebiltzen ditu.

- 83 ebasketa/lapurreta delituen artean: 49 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 13, antisemitismoari; 11, sexu-orientazioari edo genero-identitateari; 7, musulmanen aurkako aurreiritziari; 1, kristauen aurkako aurreiritziari; 1, beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritziari; eta 1, desgaitasunari.
- 19 hilobi-profanazio delituen artean: 10 arrazakeria eta xenofobiaren ondorio dira, eta 9 antisemitismoaren ondorio.
- 17 sute-delitutik: 12 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 2, kristauen aurkako aurreiritziari; 1, antisemitismoari; 1, musulmanen aurkako aurreiritziari; eta 1, beste erlijio edo sinesmen batzuetako kideen aurkako aurreiritziari.
- 16 homizidio/hilketa delituen artean: 10 arrazakeria eta xenofobiari dagozkio; 2, erromanien eta sintien aurkako aurreiritziari; 1, antisemitismoari; 1, musulmanen aurkako aurreiritziari; 1, kristauen aurkako aurreiritziari; eta 1, sexu-orientazioari edo genero-identitateari.

Azkenik, OSCE/ODIHR erakundeak ez du daturik eman auzipetutako gorroto-delituen kopuruari buruz, ezta Alemanian ezarritako zigorrei buruz ere.

### 3.2. Errealitate enpirikora hurbilketa: beste datu batzuk

Alemanian, datu estatistikoei dagokienez, erreferentzia ofizial zentrala Alemaniako Barne Ministeriotik datorrena da (Bundesministerium des Innern, für Bau und Heimat). Ministerio honek, Motibazio Politikoko Indarkeriaren kategoria orokorraren barruan (Politisch Motivierte Kriminalität, PMK) gorroto-kriminalitatea (Hasskriminalität) deitzen duen azpikategoria zehazten duena.

Motibazio politikoko krimenen kategoriarik zabalenera dagokionez, Konstituzioaren Babeserako Bulegoaren (Verfassungsschutzbericht) 2019ko azken txostenean jasotako definizioari jarraiki<sup>106</sup>, halakotzat hartuko dira Estatuaren aurkako delituen bloke klasikoko zigor-arau guztiak<sup>107</sup>, baita motibazio politikoa kasu indibidualetan zehazterik ez badago ere. Kategoria orokor horrek ulergarria egiten du 2019ko zifra orokorra: 41.177 delitu-gertakari, motibazio politikoagatik, arlo horretan. Horien artean, 16.182 propaganda-delitu (%39,3) eta 2.832 indarkeriazko delitu<sup>108</sup> (% 6,9)<sup>109</sup> bereiz daitezke. Horrela, Alemanian arrazoi politikoengatik burututako delituen kopurua % 14 igo zen 2019an, aurreko urtearekin alderatuta.

